



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# GRADU AMAIERAKO LANA

**KURTZOAN ZEHAR ETORTZEN DIREN IKASLE BERRIEN  
HARRERA HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOAN**

**Egilea:** López de Sosoaga Ereño, Jone

**Grada:** Haur Hezkuntza

**Irakaslea:** Fernández Aragón, Iraide

**Ikasturte akademikoa:** 2022-2023





## **LABURPENA**

Lan honetan ikasturtean zehar datozen ikasleen harrera nolakoa den aztertzen da. Horretarako, lau irakasle elkarrizketatzen dira euren esperientzia eta bizipenak ezagutzeko: bik sare publikoan lan egiten dute; eta beste biek, itunpeko eskolan. Lan honen helburu nagusia da egoera horren aurrean nola jokatzten duten jakitea. Haien iritzi guztiak transkribatu dira, eta elkarrizketak aztertuta egiaztatu da ikasle berriak eskola publikoetan sartzen direla gehienbat. Horren ondorioz, eskola publikoko irakasleek itunpekoek baino esperientzia handiagoa dute, eta horrek esan nahi du ikastetxe publikoek garatuago dutela ikasle-etorkinen harrera-protokoloa. Gainera, lau irakasleek agerian utzi dituzte egokitzapen-prozesu berezi hau zailtzen eta errazten dituzten elementuak.

**HITZ-GAKOAK:** harrera, protokoloa, ikasle-etorkinak, aniztasuna, inklusioa.

## **RESUMEN**

En este trabajo se analiza cómo es la acogida del alumnado que viene a lo largo del curso. Para ello, se entrevista a cuatro profesoras para conocer cuáles son sus experiencias y vivencias: dos de ellas trabajan en la red pública y las otras dos en la escuela concertada. El objetivo principal de este trabajo es saber cómo se comportan ante esta situación. Se transcriben todas sus opiniones y del análisis de las entrevistas se comprueba que el alumnado de nueva incorporación se acoge mayoritariamente en las escuelas públicas. Como consecuencia de ello, el profesorado de la escuela pública cuenta con una mayor experiencia que el concertado y esto se traduce en un mayor desarrollo en los centros públicos del protocolo de acogida del alumnado inmigrante. Además, las cuatro profesoras han dejado de manifiesto cuáles son los elementos que dificultan y facilitan este proceso especial de adaptación.

**PALABRAS CLAVE:** acogida, protocolo, alumnado inmigrante, diversidad, inclusión.

<b>AURKIBIDEA</b>	<b>OR.</b>
<b>1. SARRERA</b> .....	5
<b>2. MARKO TEORIKOA</b> .....	6
<b>2.1. Immigrazioa: ibilbide luzeko fenomenoa</b> .....	6
<b>2.2. Immigrazioaren testuingurua Euskal Autonomia Elkartean (EAE)</b> .....	7
<b>2.3. Immigrazioa Hezkuntzan</b> .....	8
<b>2.3.1. Segregazioa, asimilazioa eta integrazioa</b> .....	8
<b>2.3.2. Kulturartekotasuna eta inklusioa</b> .....	10
<b>2.4. Epez kanpoko eskolarizazioa</b> .....	11
<b>2.5. Harrera-plana</b> .....	12
<b>3. LANAREN HELBURUAK</b> .....	13
<b>4. METODOLOGIA</b> .....	14
<b>4.1. Ikerketaren diseinua</b> .....	14
<b>4.2. Tresna: elkarrizketak</b> .....	15
<b>4.3. Laginak</b> .....	17
<b>4.4. Etika</b> .....	17
<b>5. EMAITZAK</b> .....	18
<b>5.1. Etorrin jatorria eta kopurua</b> .....	18
<b>5.2. Ikasle etorri berria beste haurrekiko harremana</b> .....	19
<b>5.3. Jarraitutako protokoloa</b> .....	20
<b>5.4. Komunikazioa familiarekin</b> .....	21
<b>5.5. Baliabideak eta formazioa</b> .....	22
<b>5.6. Zailtasunak eta harrera-prozesuaren bideratzaileak</b> .....	24
<b>5.6.1. Zailtasunak</b> .....	24
<b>5.6.2. Harrera-prozesuaren bideratzaileak</b> .....	26
<b>6. ONDORIOAK</b> .....	28
<b>7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK</b> .....	29
<b>8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b> .....	30
<b>9. ERANSKINAK</b> .....	34
<b>9.1. Elkarrizketa (E1)</b> .....	34
<b>9.2. Elkarrizketa (E2)</b> .....	40
<b>9.3. Elkarrizketa (E3)</b> .....	45
<b>9.4. Elkarrizketa (E4)</b> .....	52

## 1. SARRERA

Ikasle-etorkinen kopurua urterik urtera handituz doa. Honek esan nahi du erronka handia dela hezkuntza-sistemarentzat. Egoera hau are konplexuagoa da ikasleak ikasturtea jada hasita etorri gero. Horregatik, interesgarria egiten zitzaidan gaia zen: nola jokatzeko zuten irakasleak egoera honen aurrean? Galdera hau practicumean sortutakoa izan zen eta GrLA aitzakiatzat hartuta gaiari buruz aztertzeko aukera izan nuen. Izan ere, bereziki, azkeneko bi urtetako practicumetan bi errealitate guztiz ezberdinak bizitzeko aukera izan nuen eta kurtsoan zehar haur berrien harrera nola egiten zuten ikusteko interesa piztu zidan.

Lehenik eta behin, lan hau hasi aurretik, informazioa eskuratu behar izan nuen horretarako hainbat artikulu irakurri eta gaiari buruzko informazioa jasoz. Behin marko teorikoa eginda, gaur egungo egoera nolakoa den aurrez aurre jakiteko, nola hobe eskoletara joan eta irakasleei zuzen galdetuz baino? Hori egin nuen lau irakasleri ikasturtea behin hasita etortzen diren haur etorkinei buruz. Lau elkarrizketa ezberdin horietatik bi sare publikoan lan egiten zutenekin eta beste biak, berriz, sare itunpekoekin burutu genuen. Elkarrizketatu eta gero, esandakoa transkribatu nuen eta bi iturri horietako informazioa alderatu nuen. Emaitzetan esandakoa multzoka ordenatzen saiatu gara esanguratsuen agerian utziz.

Amaitzeko, ondorioetan informazio guztia interpretatzen saiatu naiz ea planteatutako helburuak bete diren ala ez azalduz. Zati honetan oinarri teorikoan bildutakoa eta emaitzak bateratzen ditugu. Amaitzeko, hobetzeko proposamenak adierazi ditut bat edo beste irakasleek beraiek harrera-planari buruz esandakoaz oinarrituta.

Laburbilduz, gai interesgarria dela deritzot eta honi buruz unibertsitatean hainbat irakasgai izan arren, ez dugu inoiz sakondu kurtsoan zehar etortzen den ikasle berriekin nola jokatu ezta zein den jarraitu beharreko protokoloa ere. Etorkizunean ezinbestekoa iruditzen zait nola jokatu behar den jakitea, edo, gutxienez, nondik abiatu haurren, gelaren eta familiaren ongizatea bermatzeko.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. Immigrazioa: ibilbide luzeko fenomenoa

Immigrazioaren fenomenoak, beste gizarte- eta kultura-aldaketa sakon batzuekin batera, gero eta gizarte anitzagoak eta heterogeneoagoak eratzen ditu. Gizartean ez ezik, fenomeno honek hezkuntza-sisteman ere eragin handia du.

80. mendeko hamarkadaren erdialdean migrazioa Espainiara iritsi zen, batez ere Afrikatik eta Latinoamerikatik etorritakoak (Besalú, 2002). Etorkinak aldi baterako langileak zirenez, gobernuek ez zuten beharrezkotzat jotzen integrazio-politikarik sortzea. Euskadin, ordea, nazioarteko migrazioak ez ziren garrantzitsuak 90eko hamarkadaren amaierara arte. 2000. urtean, Euskadin 21.000 pertsona atzerritarrak bizi ziren, hau da, Euskadin bizi ziren biztanleen % 1a. Ehuneko horrek pixkanaka urtez urte gora egin du gaur egun arte (Martin eta Zamalloa, 2013). Estatu-mailan urte berean etorkinen kopurua ez zen oso nabarmena (ikus 1. Taula). Orduan, immigrazio horren aurrean botere publikoek haur etorkinei hezkuntza-sistema finkatueta sartzen laguntzen zieten, besterik ez. Izan ere, sistema horiek ez zuten nahi, inolaz ere, beren curriculum, antolaketa eta funtzionamendua aldatu (Besalú eta Vila, 2007).

Aurreko paragrafoan begi-bistan geratzen da immigranteek jaso zuten diskriminazioa. Zenbaitetan, gizartea arrazoi bidegabeetan oinarritzen da (kasu honetan, etorkinak aldi baterako langiletzat hartzea), eta horrek pertsonen gizarteratzea eragozten du, soilik kolektibo horretako kide izateagatik (etorkina izateagatik).

**1.Taula.** Etorkin kopurua Espainian 2000-2019 (Iturria: *datosmacro.com*)

Urtea	Etorkinak	Etorkinak %etan
2019	6.104.203	% 12,90
2017	5.947.106	% 12,75
2015	5.891.208	% 12,69
2010	6.280.065	% 13,46
2005	4.107.226	% 9,33
2000	1.657.285	% 4,08

Etorkin-kopuruaren etengabeko gorakadak adierazten du fenomeno migratzailea ez dela botere publikoek pentsatzen zuten bezain iragankorra. Horregatik, beharrezkoa da modu zehatz batean aztertzea zeintzuk diren immigrazioaren inguruko datuak Euskal Autonomia Elkartean, baita horietan eman den bilakaera ere.

## 2.2. Immigrazioaren testuingurua Euskal Autonomia Elkartean (EAE)

Arestian esan bezala, 2000. urtean EAEn 21.000 etorkin bizi ziren. Harrezkero, urtez urte etorkinen kopurua handituz doa. Ondorengo taulan ikusi ahal den bezala 2019tik 2022ra hazkunde nabarmena ere egon da. Hezkuntza-sistema egoera honetara ere egokitu behar izan da.

**2.Taula.** Etorkinen kopurua EAEn 2019-2022 (*Ikuspegi*)

Urtea	Kopuru guztira
2022	253.038
2021	246.501
2020	241.724
2019	221.992

Etorkinen jatorriari dagokionez, azkenengo lau urteetan joera bera dago Euskadiko immigrazioan: Maroko, Kolonbia, Errumania eta Nikaragua (ikus 3. Taula) dira jatorrizko herrialdeak. Datu horiek bat datoz Estatuan bizi diren etorkin kopuruarekin: Maroko, Errumania eta Kolonbia dira lehenengo hirurak (Instituto Nacional de Estadística, 2022).

**1.Irudia.** EAeko biztanle etorkinen jatorria 2019-2022 (*Ikuspegi*)

2019	2020	2021	2022
Maroko	Maroko	Maroko	Maroko
Kolonbia	Kolonbia	Kolonbia	Kolonbia
Errumania	Errumania	Errumania	Nikaragua
Bolivia	Nikaragua	Nikaragua	Errumania



Ondorioz, Eskolak beste erronka bat du: hizkuntzakoa. Izan ere, Marokotik etorritako ikasleek arabiarra erabiltzen dute, mendebaldeko dialektoa, “Darija” izenekoa, hain zuzen ere. Saharako haurrak, aldiz, “Hassanieraz” mintzatzen dira. Kolonbian, ordea, gaztelaniaz egiten dute, baina kitxuaz ere mintza daitezke (Larrea et al., 2013). Ikasle errumaniarrek, berriz, beren hizkuntza erromantzez hitz egiten dute. Nikaraguan gaztelania da nagusi eta Boliviako kasua berezia da. Izan ere, gaztelaniaz ez ezik, aimaraz, kitxuaz eta guaranieraz ere hitz egin dezakete (Larrea et al., 2013). Egoera korapilatsu hau are korapilatsuagoa bihurtzen da gure hezkuntza-sistema eleanitzarekin. Zenbait ikasle-etorkinek gaztelania menderatzen badute ere, euskara da irakaskuntzan gehien erabiltzen dena. Oro har, horrek esan nahi du haur etorkinentzat sistema eleanitza dela: euskara, gaztelania eta ingelesa ikasi beharko dute. Marokotik edo Errumaniatik etorritz gero, badute laugarren hizkuntza: etxekoa.

Adostasun handia dago ikasle-etorkinak eskolatzean eta gizarteratzean hizkuntzak duen garrantziaz. Baina irakasleak oso kezkatuta daude zenbait arlotan, hizkuntzengan bereziki, lanak nola egin eta ikasle-etorkinak integratzeko orduan, batez ere harrera-hizkuntza(k), ezagutzen ez dituztenean. Irakasleek azpimarratzen duten beste kezka bat formazio-faltarena da, eta erronka berriei erantzuteko baliabideen eskasia. Ordea, gobernuak eskolei eskaintzen die Hizkuntza Indartzeko Proiektuak aurkezteko aukera. Proiektu hauen bidez baliabideak eskaini nahi zitzaizkien, Euskal Hezkuntza Sistematan lehen aldiz eskolatzen ziren ikasleen beharrak asetzeko, baldin eta komunikatzeko gabezia handiak bazituzten, eta hizkuntza errefortzua behar bazuten.

Oro har, Euskadiko ikasle-etorkinen kopurua 2020-21. ikasturtean %9,4a (34.861 ikasle) da (Eurydice, Espainiako Gobernuak, 2021). Kopuru hori bat dator Estatuko bataz bestearekin (%9,9a). Geroago analizatu egingo dugu haur horiek Euskadin nola eskolatzen diren. Izan ere, kopuru hori ez da ikastetxeen artean modu orekatuan banatzen.

## **2.3. Immigrazioa Hezkuntzan**

### **2.3.1. Segregazioa, asimilazioa eta integrazioa**

Segregazioa kultura- eta arraza-taldeak bereiztea da eta bereizketa hori legez ezartzen da. Historian zehar hainbat eta hainbat kasu gertatu dira: besteak beste, nazien garaian judutarrekin, Hegoafrikako apartheidaren edo Ipar Amerikako indiarrekin.

Gurera ekarriz, ez da onargarria legez haurrak bereiztea, baina praktikan gertatzen da *de facto* segregazioa (Coelho, 2016). Izan ere, ikasle-etorkinen egoera analizatzean, kontuan hartzeko beste faktoreetako bat da non eskolaratzen diren ikustea. Azurmendik (2018) *El Diarion* ateratako datuen arabera, ikasle-etorkinen %80a eskolaratzen da ikastetxe publikoan eta soilik %20a itunpeko ikastetxeetan. Zenbait egileren ustez, bi arrazoi nagusi dira fenomeno hau azaltzen direnak: alde batetik, etorkinen alderdi erlijiosoa eta soziokulturala; eta bestetik, zentro kontzertatuetara joateko baliabide ekonomikoen gabezia (García eta Rubio, 2008). Honen ondorioz, bereizketa handia ematen da gure ikastetxeetan: publikoetan herritartasun dibertsitatea ematen da; eta ikastetxe pribatu eta kontzertatuetan, dibertsitate-falta. Orokorrean, prozesu honek eragin zuzena du ikasleengan eta hezkuntzan; ikasle-etorkinen marjinazioa eta bazterketa agerian utziz. Etorkin gehienak sare publikoan eskolaratzen dira eta A eredia aukeratzen dute. Gauzak horrela, hainbat eta hainbat eskola publikotan *ghettizazioa* agertzen da non ia ikasleriaren gehiengoa etorkina den.

“Asimilazioa norabide bakarreko absortzio-prozesu bat da, zeinaren arabera gutxiengoek baztertu egiten baitituzte, publikoki bederen, beren identitate etnikoak” (Coelho, 2016: 19). Egoera honetan ikasle-etorkinak behartuta daude kultura hegemonikora moldatzera eta beraiena baztertzerara. Normalean, mendebaldeko kultura nagusitzen da eta gainerakoak, aldiz, bigarren mailan uzten dira. Zenbait kasutan, posible da gizartean aukera-berdintasunak kolokan jartzea.

*La racialización es un proceso mediante el que se pervierte el reconocimiento de la diversidad cultural, al estereotipar las diferencias según una relación jerárquica donde se asumen como centrales los rasgos identitarios del occidente desarrollado; es decir, confirmando desde una posición eurocéntrica las relaciones de dominio con la población diversa no autóctona, a la que paradójicamente se le otorgan los elementos propios de una cultura homogénea* (Terrén, 2004).

Integrazio kontzeptua batzuetan asimilazio edo akulturazio terminorekin nahasten da. Esser (in Sole et al., 2002) adituaren hitzetan, akulturazioa izango litzateke berdintasun-prozesua kultura hartzailearen jarduteko modu eta portaera ohikoenen ikaskuntza kulturala. Asimilazioak erreferentzia egingo lioke etorkinen arteko antzekotasun-egoerari, aukeratu dituen sistemarekiko ekintza, orientazio eta konexio interaktiboetan. Integrazioa, aldiz, berdintasun pertsonaleko edo harreman-berdintasuneko egoera bat izango litzateke. Bereizketa honekin lotuta, Wagman-ek (2004) gaur egun integrazioaren inguruan dagoen iritzi komuna kritikatzan du berriro mendebaleko kultura gailentzen baita:

*En nuestro contexto se escucha en muchos discursos las propuestas de integración, no como un reconocimiento de las barreras de participación social, sino como una idea de que si los inmigrantes no están integrados es porque muestran ciertas limitaciones, carecen o tienen más débiles ciertos valores, y que para integrarse deben someterse a procesos de autotransformación, reeducación, aprendizaje y adquisición de valores y capacidades, que les permitan acceder, al final, a sociedades como la nuestra.*

Azkenengo urteetan zehar hezkuntza programa desberdinak planteatu dira non bi ardatz desberdinak hartzen dituzten: lehenengoa, haurren bigarren hizkuntzari soilik garrantzia ematea, ondorioz, bigarren hizkuntzaren asimilazioa gertatzen da, hau da, bere ama-hizkuntza ez baloratzea eta ahaztea, eta bigarren hizkuntza ikastea; eta bigarren ardatza, haurren ama-hizkuntza baloratzea eta hortik abiatuta bigarren hizkuntza ere baloratzea. Horrenbestez, murgilketa ematen da (Cummis, 2002).

Asimilazio programetan diskriminazioa azpimarratu daiteke, berriz ere, herrialde boteretsua bere hizkuntza ofizialak inposatzea eta immigranteen ama-hizkuntza desagertzen laguntzea. Bestalde, hainbat autore murgiltze programari baietza ematen diote, eta programa horren onurak azpimarratzen dituzte (Coelho, 2016).

Are gehiago, curriculumak malgua izan behar da, eta eskola bakoitzak bere berezitasunen arabera garatzeko aukera izan behar du, bere ikasleen ezaugarrietara egokituz. Egia esan, gizarte egozentriko honetan zaila dela curriculum ez eurozentrismo bat sortzea, batez ere, desberdina dena txarra dela erakutsi delako. Eta horrexegatik beharrezkoa da aniztasunarekiko errespetuaren balioa curriculumeko konpetentzia guztietan ezartzea eta kulturartekotasunerako gaitasuna sortzea (Barquín eta Ruiz, 2009).

### **2.3.2. Kulturartekotasuna eta inklusioa**

Kultura arteko hezkuntzak ikasle guztiek izan behar dute, eta ez soilik etorkin atzerritarren seme-alabek. Izan ere, herritar guztiak gizarte konplexu, ireki eta pluraletan bizitzeko prestatu behar dira. Hala, eskola-curriculumak Europako eta munduko errealitatera zehatzago egokitu beharko litzateke, eta kontuan hartu beharko lirateke Europaz kanpoko kulturen ekarpenak, estatu modernoaren barne-aniztasuna eta teknologia berriek bultzatutako kultura-mundializazioaren prozesuak (Coelho, 2016).

“Inklusio” hitza entzuterakoan, gogora etortzen zaizkigu hainbat kontzeptu: berdintasuna, ekitatea, lorpenak, parte-hartzea, justizia soziala edo integrazioa, besteak beste. Oro har, gaur

egungo gizartean baztertuak dauden pertsonekin erlazionatzen da. Aldiz, inklusioa hezkuntzan pertsona guztiak onartzean datza. Hori ez ezik, ikasle guztiek aukera, parte-hartze eta lorpen berberak izatea ere bada. Inklusioa ikasle guztien sarbidearekin, parte-hartzearekin eta lorpenekin lotuta dago; bereziki, baztertuak edo baztertuak izateko arriskuan daudenak, hainbat arrazoiengatik (Blanco, 2006).

Eskola inklusiboa ekitatean eta justizia sozialean oinarritzen da. Horretarako, hezkuntzak kalitatezkoa izan behar du, aukera berdinak emango dizkiena pertsona guztiei. Desberdintasun indibidual eta kulturalak errespetatuz aniztasuna modu inklusibo batean zaindu behar da. Pertsonen egokitutako testuinguru bat sortu non desberdintasunei erantzuten diena eta talderik edo pertsonarik ahulenei babes eta laguntza zehatzak emango dizkiena.

#### **2.4. Epez kanpoko eskolarizazioa**

Ikasle-etorkinen eskolaratzearen inguruan hitz egitean, analizatu beharreko faktore bat eskolara epez kanpo etortzearen fenomeno da. Normalean, kanpotik etortzen diren ikasleen familiek leku-aldaketa hori arrazoi ekonomiko edo sozialengatik egin ohi dute, lanagatik gehienetan.

*Esta movilidad se ha atribuido en parte a las dinámicas migratorias y a los procesos de reagrupación familiar, pero también debe analizarse como efecto de las estrategias familiares relativas a los cambios económicos y a la situación del mercado laboral o el acceso a la vivienda (Carrasco et al., 2012: 315).*

Gainera, leku-aldaketak ikasturtea hasi aurretik egin daitezke, baina batzuetan ikasturtea jada hasita dagoenean gertatzen dira; epez kanpoko eskolarizazioa deiturikoa. Epez kanpo etortzeak ondorio kaltegarriak ditu zentzu guztietan. Izan ere, ikasturtearen hasieran etorri den ikasleak zailtasunak izan ditzake beste ikasleen maila akademikoa lortzeko eta horrek ikasgela osoaren erritmoan eragin ditzake. Familia birfinkatzearen ondorioz, eskolaz distantzia handiago batetik aldatu diren ikasleek zailtasun handiagoak izan ditzakete eskola berrira egokitzeko, aldi berean egin beharreko beste bizi-doikuntza batzuen ondorioz. (Ibidem).

Epez kanpoko etortzearen fenomeno honek irakasleen inplikazio handiagoa eskatzen du. Hain zuzen, ikasleen mugikortasun handiko dinamiken aurrean, irakasleek malgutasunez erantzun behar diete sartzan ari diren ikasleen beharrei, edukiak egokitu behar dituzte eta, aldi berean, ikasle guztien ezagutzaren aurrerapenei eutsi behar diote. Prozesu hau arazo bat

izan daiteke baldintza urriak dituen ikastetxe batean. Adibidez, gela bakoitzeko ikasle asko dituen, irakasle laguntzaile gutxi dituen edo ikasle-etorkinak epez kanpo etortzea ohikoa den ikastetxe batek zailtasunak izango ditu gelaren erritmoa mantentzeko eta ikasle berrien integrazioa bermatzeko. Hala ere, esan bezala, familia etorkinak epez kanpo etortzea ez litzateke arazo bat bezala ikusi behar, haiek izaten baitira prozesu horretatik kaltetuen ateratzen direnak. Hau da, helburua ez litzateke izan behar familia horiek ez etortzea, baizik eta etorrera eta integrazioa bermatuko duten baliabideak aurkitzea.

## **2.5. Harrera-plana**

Oinarri teorikoari bukaera emateko, “Ikasle-etorkinentzat harrera-plana egiteko orientabideak” 2019. urtean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak argitaratutako dokumentua aztertu behar dugu. Dokumentua orokorra denez, ez da hezkuntza-maila zehazten. Beraz, baliagarritzat jotzen dute bai Haur Hezkuntzan bai Lehen Hezkuntzan.

Dokumentuan eredu orokorra aurkezten du, oinarria dena, gero irakasleek beren geletan gauzatzeko. Hortaz, esan dezakegu testu orientagarri bat dela, gida bat, alegia. Helburua da geroz eta handiagoa den beste herrialdeetako ikasle-kopurua eskolaratzeko prozesuan ahalik eta gehien ikastetxeei laguntzea. Dokumentu honen sarreran ezaugarri nagusiak ezartzen dira (Hezkuntza Sailak, 2019: 3-5). Besteak beste:

1. Harrera-plana, arestian esan bezala, protokolo bat da.
2. Jakina, hitz nagusia “harrera” da. Ikaslearentzat harrera ona izateak berebiziko garrantzia du, geroko bilakaera baldintza dezakeena.
3. Ikaslearen harrera ez ezik, familiaren harrera ere bada. Honen egoera zein den ezagutzen saiatu beharko du irakasleak, baita beraien hizkuntza-egoeraz ere (Larrea eta al., 2013), ikaslearen jatorrizko herrialdeko ohitura soziolinguistikoa zein den jakiteko, alegia.
4. Prozesu konplexu hau arazotzat ez hartzeko aholkatzen da, testuan aniztasuna aberasgarria dela behin eta berriro aipatzen baita. Harrera-planean irakaslearen papera altruista dela azpimarratzen da.
5. Xedea eskola inklusiboa bultzatzea da aniztasunari erantzun egokia emateko.


Sarreran harrera-planaren filosofia azaldu eta gero, haur berri bat etortzean jarraitu beharreko pausoak zehazten dira (Ibidem, 5-13). Lehenengoa, zer egin behar den ikasle berria etorri aurretik: informazioa biltzea, beste langileekin informazioa partekatzea eta harrera prestatzea

bai gelan bai ikastetxean. Bigarren pausoa, familiarekin bilera bat egitea da non familientzako informazioa eskaini eta familien informazioa jasoko den. Hirugarrenean, berriz, lehenengo erabakiak hartuko dira, hau da, ikasle berria zein kurtsotan matrikulatuko den eta zein motatako laguntzak izango dituen zehaztea. Laugarren pausoa, etorri berriaren harrera prestatzen da, lehenengo egunean egin beharreko ekintzak planifikatzea barne. Bosgarrenean, ordea, esku-hartzeko norbanako jarduera plana aurreikusten da: hasierako diagnostikoa egin ondoren, laguntza-saioak planifikatzen dira eta bilakaera aztertzen da, hiru hilabetez behin norbere plan hori berrikusten baita. Azkenik, seigarren pausoa, jardueren jarraipena eta harrera-planaren ebaluazioa egingo da.

### 3. LANAREN HELBURUAK

Helburuei dagokienez bitan banandu ditut: alde batetik, orokorrak; eta bestetik, zehatzak hurrengo irudian ikusi bezala.

**2.irudia.** Helburu orokorrak eta zehatzak.



## 4.METODOLOGIA

### 4.1. Ikerketaren diseinua

Gradu Amaierako Lan honen metodologiaren inguruan zehaztapenak eman baino lehen, ikerketa bera zer den eta zertarako egiten den ulertu behar da. Honela definituko litzateke: ikerketa problemak ebazteko jarduera gisa, prozesu zientifikoen bidez galderei erantzunak aurkitzea helburu duena. Kasu honetan, ikerketa honen arazo-egoera kurtsoan zehar etortzen diren ikasle berriak izango litzateke eta sortzen den galdera nagusietakoa harrera-planak izan dezakeen funtzioa da.

Ikerketaren galdera pizgarria kontuan izanda galdera horri erantzuna emateko bidea bilatu behar da; hau da, ikerketaren metodoa zehaztu behar da. Ikerketaren diseinua ikertzaileak gertaera berriak bilatzeko eta haien arteko loturak zehazteko hautatutako metodo-multzo bereziari dagokio. Hemen erabakitzen da nola aukeratuko diren datuak, zeintzuk izango diren metodo analitikoak, nola formulatuko den arazoa edota zer tresna espezifikoko mota erabiliko den.

Metodo bakoitzak helburu zehatz batzuei erantzuten die; ezin da edozein metodo egoera guztietan erabili. Alabaina, metodo bakoitzak lortu nahi den informazioa modu jakin batean analizatzea ahalbidetzen du, beste metodoek eskaini ditzaketen bideak alde batera utziz. Bi izan daitezke ikerketa-metodoak: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Ikertzaileak aukeratu behar du bata ala bestea, edo biak batera aukeratzea, hau da, metodologia mistoa erabiltzea (Chaves-Montero, 2018). Ikerketa honetan erabiliko den metodologia azaldu baino lehen, bi metodo hauek desberdintzea funtsezkoa iruditzen zait, erabiliko den metodoa modu kontziente batean jorratu ahal izateko. Quintanak (2006) honako desberdintasuna egiten du:

*La principal diferencia (...) no radica exactamente en el uso de números en el primer caso y en el no uso de estos en el segundo, sino el tipo de intencionalidad y el tipo de realidad que uno y otro enfoque investigativo pretenden abordar (Quintanak 2006: 47).*

Azkeneko ideia horri lotuta, Pérezek (2002) aipatzen du ikuspegi kuantitatiboak errealitatearen alderdi unibertsalenetan eta kanpoko ikuspegi objektibo batetik ikusitakoetan oinarritutako azalpenean eta iragarpenean zentratzen direla. Ikuspegi kualitatiboak, berriz, bere alderdi partikularretatik protagonisten logikatik eta sentipenetik abiatzen dira; hau da,

barne-ikuspegi subjektibotik eraikitze eta ikusteko prozesu historiko baten emaitzat hartzen den errealitatea ulertzeko.

Nire kasuan, aukeratutako gaia soziala izango da, hau da, ikasle-etorkinak ikasturtea jada hasita eskoletan zer nolako harrera egiten zaien ikertzea. Oinarri teorikoan datu erreal eta kuantitatiboak aurkeztu ditudan arren, ikerketaren oinarria interpretazioan egongo da, gizartean ematen diren prozesuak ulertzeko (Iñiguez, 2004).

Ildo beretik, Corderok (2012) aipatzen du metodo kualitatiboek oinarrizko suposizio batetik abiatzen diren gizarte-fenomenoak ikertzeko estilo edo modu bat erabiltzen dutela: gizarte-mundua esanahiekin eta sinboloekin eraikitako mundua da, eta horrek eraikuntza horren esanahiak bilatzea eskatzen du. Aipamen honek nire ikerketaren metodologia kualitatiboa justifikatu dezake, nik egindako ikerketaren helburuak dira fenomeno sozial baten errealitatea ikustea (ikasle-etorkin berriena) eta gai horretan eskolen erantzuna analizatzea. Hori horrela, ikerketa kualitatiboa izango da aukeratutako metodoa eta elkarrizketen bidez gauzatuko da.

#### **4.2. Tresna: elkarrizketak**

Ikerketa hau garatzeko erabili den tresna nagusia elkarrizketak izan dira. Aldez aurretik gidoi bat prestatu genuen. Elkarrizketa nola zihoan arabera moldaketa batzuk egon ziren galderen inguruan. Gidoiari dagokionez, ez dute balidazio ofizialik galderak nik sortu nituelako (ikusi 3. Irudia). Hau da, ikerketa garatzeko orduan interesgarriak iruditu zitzaizkidan galderak sartu nituen, galdera horietatik lortutako erantzunei esker emaitza esanguratsuak atera ahal izateko.

Ikerketa honen bidez, honako informazioa jasotzea bilatzen zen: ikastetxe horretan zeuden ikasle-etorkinen jatorria eta kopurua, epez kanpo eskolaratzen diren ikasle-etorkin kopurua, ikasle-etorkinek integratzeko izaten dituzten zailtasunak jakitea, irakasleek dauzkaten baliabideak zeintzuk diren jakitea, irakasleek tresna eta formazio nahikoa duten ikustea, familia etorkinekin dagoen harremana azaltzea edo ea protokoloren bat jarraitzen duten adieraztea, besteak beste.



### 3. Irudia. Galdera-sorta

1. Eskola Publiko batean edo kontzertatu batean egin duzu lan? Aldea ikusi duzu aniztasunaren inguruan? Konkretuki zein gauzatan antzeman dituzu desberdintasunak? Adibidez, baliabideetan? Non daude gehiago?
2. Eta gaur egungo zure eskolako aniztasunez hitz egiten badugu, asko al dago? Zeintzuk dira jatorri nagusienak?
3. Kurtsoan zehar etorritako hau baten egoera bizi izan duzu? Nolakoa izan zen harrera? Eta egokitzapena?
4. Nola ikusten zenuen? Zeintzuk ziren bere jarrerak? Zeintzuk bere emozioak?
5. Duelurik ba al dago? Nola egiten dio hurrak aurre dueluari? Zenbat irauten du dueluak?
6. Zer baliabide izan zenituen? Nola jokatu zenuen?
7. Zer aldatuko zenuke protokolo hori hobetzeko?
8. Arlo horretan formatuta zaudete? Ba al da ikastarorik?
9. Beste hurrek nola jokatu zuten? Nolako harremana izan zuen hurrak beste klasekideekin?
10. Harremanak estuagoak egiteko edo haurra taldearen barnean sentitzeko proposamenik ba al duzu?
11. Komunikazioa nolakoa izan zen hurraren familiarekin? Eta familiaren egoera nolakoa da? Zer jarrera izaten dute?
12. Hizkuntzaren aldetik, nola komunikatzen zinen hurrarekin? Zein zen bere ama-hizkuntza? Hurrak zailtasunak dituzte eledun izateko?
13. Zer zailtasun eta erraztasun izan zituen hurrak? Eta irakasle zaren aldetik? Nolako garapena eta aurrerapenak egin zituen?
14. Zerk lagundu zion gehien? Non jarri zenuen begirada? Zein espaziotan sentitzen zen erosoago?
15. Oro har, uste duzu jatorri batzuk errazago dutela eta beste batzuk zailago? Edo ez dago diferentziarik? Zergatik?
16. Gai honen inguruan zerbait gehiago kontatu nahi al duzu?

### 4.3.Lagina

Haur Hezkuntzako irakasle ezberdinei egin diet elkarrizketa: bi itunpeko batean lan egin dute eta beste bi, aldiz, publikoan aritzen direnak. Hortaz, haien artean alderik ba ote dagoen ikusteko aukera izango dugu.

Sare publikoko bi irakasleak Practicum III-ko egonaldia aprobetxatuz aukeratu nituen. Itunpeko ikastetxeetan, aldiz, norbait bilatzea zailagoa izan zen normalean ikasturtea behin hasita ikasle-etorkinik izatea ez baita ohikoa. Dena den, bi irakasle elkarrizketatzea lortu nuen ezagunen batzuen bitartez.

Ondoko irudian agertu bezala, laurak dira emakumeak eta, oro har, eskarmentu handikoak. Laurak tutoreak dira Haur Hezkuntzan.

Elkarrizketak mugikorrarekin grabatu ondoren, esandakoa transkribatu nuen hitzez hitz (ikus eranskinetan).

#### 4.Irudia. Ikertutako irakasleen zenbait ezaugarri.

	<b>PROFILA</b>	<b>ESPERIENTZIA</b>	<b>POSTUA</b>	<b>IKASTETXEA</b>
<b>ELKARRIZKETA1 (E1)</b>	Emakumea, 61 urte	37 urtekoa	Irakaslea	Publikoa
<b>ELKARRIZKETA2 (E2)</b>	Emakumea, 32 urte	5 urtekoa	Irakaslea	Publikoa
<b>ELKARRIZKETA3 (E3)</b>	Emakumea, 37 urte	13 urtekoa	Irakaslea	Itunpekoa
<b>ELKARRIZKETA4 (E4)</b>	Emakumea, 42 urte	23 urtekoa	Irakaslea	Itunpekoa

### 4.4. Etika

Lau irakasleen datuak eta ikastetxeen izenak gorde egin ditugu, baita, jakina, ikasle-etorkin berrienak ere. Anonimotasuna errespetatuko dugu. Honez gain, ikerketan parte hartu duten irakasle horiei ale bana emango diegu haiek eskainitako denbora nolabait eskertuz.

## 5. EMAITZAK

Analisia egiteko lau elkarrizketetan bildutako informazioa hainbat zatitan banatu dugu: etorkinen jatorria eta kopurua, beste hurrekin izandako harremana, jarraitutako protokoloa eta formazioa, familiarekiko komunikazioa, baliabideak, erabilitako tresnak eta, azkenik, zailtasunak eta harrera-prozesuaren bideratzaileak.

### 5.1. Etorkin jatorria eta kopurua

Dirudenez, ikastetxe publikoetan Marokotik eta Nigeriatik etorritako haurrak datozela eta itunpekoetan, aldiz, Hegoamerikatik gehienbat.

*Jatorri nagusienak normalean bada Marruecos eta Nigeria. (E2)*

*Baina, bueno, gehiengoak dira hegoamerikarrak. Bueno Hegoamerikarrak, gurasoak, zeren eta, umeak hemen jaio dira. (E3)*

*Oro har, familia batzuk etorkinak dira, nahiz eta gure ikasleak hemen bertan jaiotakoak diren. (E4)*

Kopuruari buruz hitz egiterakoan, publikoan noski, kultura aniztasun askoz gehiago dago itunpekoan baino. Gainera, eskola itunpekoetan aritzen zirenek esaten zuten etorri berriak ziren haurrak eskolan bertan beste kurtso batean haien familiako bat zegoela. Horrek asko laguntzen zuela egokitzapen-prozesuan. Itunpekoan aritzen zen beste irakasleak aipatzen zuten bere eskolan zegoen etorkin kopuru guztia hemen jaiotakoak zirela baina haren gurasoak kanpotarrak zirela. Orduan, haur horiek ez dira etorkinak. Baina publikoan, berriz, ez zidaten hori aipatu guztiz kontrakoa, kurtsoan zehar urtez urte hiruzpalau etorkin berri etortzen zirela haien gelara. Gainera, haien eskola oso anitza zela azpimarratu zidaten bai kultura aniztasunean bai behar bereziko haurren kopuruan. Elkarrizketatutako irakasle guztiek sare publikoan aniztasun gehiago zegoela onartzen dute.

*Bai aurten hiru matrikula izan ditut kurtsoan zeharrekoak. (E2)*

*Oso eskola anitza da baina zentzu onean noski, ez bakarrik jatorri ezberdinengatik baizik eta ditugulako behar bereziko umeak, familia ezberdinak eta anitza eta polita da bai. (E2)*

*Justo ondoan daukagu kontzertatu bat eta hor etorkinak ez daude eta guk daukagu kopuru nahiko potentea. (E1)*

*Publikoetan aniztasuna ugaria da. Orain igual parekatuago egoten hasi dira, baina betidanik, publikoetan aniztasuna handiagoa da. (E3)*

Haur etorkin berriak harrera egiteko baliabideak aipatzerakoan, iritzi kontrajarriak daude bi sare ezberdineko irakasleen aldetik: itunpekoek baietz esaten duten bitartean, sare publikoan lan egiten dutenek aitzakiatzat jotzen dute edo behar diren errekurtsio nahikorik ez dagoela agerian uzten dute

*Baliabideen aldetik ikusten dudana errealitate nagusiaren errekurtsioak, publikoetan beti daude errekurtsio gehiago. Adibidez, jo. Ni hasi nintzenean, lanean HIPI bezala hasi nintzen; eta orduan, ikastaro horietan ezagutzen nituen beste HIPI batzuk. Eta publikoetan, askoz ordu gehiago zituzten gauza hauetarako; eta bueno, betikoa, kontzertatuak dira kontzertatuak eta publikoetan errekurtsio material eta dirua aldetik gehiago dago. (E3)*

*Batzuetan bidali dute gure eskolara esanez, gu medio gehiago ditugula eta horrelako gauzak. (E1)*

*Baliabide gehiago ba hasteko pertsona bat harrera hori egiteko. (E2)*

Antza, errekurtsio gehiago dute ikastetxe publikoek itunpekoek baino. Badirudi hobeto prestatuta daudela prozesu hori behin baino gehiagotan bizi dutelako, bertako aniztasun handiak hartara bultzatuta.

## **5.2. Ikasle etorri berria beste haurrekiko harremana**

Lau irakasleek iritzi bera dute haur etorkinak taldean sartzeko Lehen Hezkuntzako egoera okerragoa dela Haur Hezkuntzako baino. Izan ere, Haur Hezkuntza etapa egokia da etorri berria taldean sartzeko oraindik txikiak direlako eta horrela poliki-poliki moldatzen joaten direlako. Antza, haurrak oraindik txikiak direnez, ez dituzte sozietate arrazista eta klasista honetan dauden aurreiritziek eta haur guztiak berdintasunetik harremanak ezartzen dituzte.

*Umeak gainera dauden momentuan, "pues, eh" haiek ez dute bereizten nongoak, nortzuk diren hemengoak eta nortzuk ez. (E1)*

*Errazago dute Haur Hezkuntzara txikitatik etortzen direnak nik uste zailtasun handia dagoela Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Haur Hezkuntza oso garai ona da etortzeko. (E2)*

Ildo beretik, Haur Hezkuntzan irakasleak gelan haur berri bat joango dela aurretik jakinarazten die haurrei eta poz-pozik jartzen dira lagun berri bat egiteko asmoarekin. Egia da, gero haur bakoitzaren arabera gehiago hala gutxiago erlazionatzen direla, baina ikaskideen jarrera positiboa eta ilusioz beterikoa da. Itunpeko irakasle batek, aldiz, jatorri bereko ikasleak haien artean erlazionatzen zirela aipatzen zuen.

*Ba, normalean, ilusioa egiten die ume berri bat etorriko dela. Nahiko irekita egoten dira. Eta gero ya depende umea, ze umea da atsegina bada, jolastu nahi duen ala ez... (E1)*

*Normalean beste ikasleek asko laguntzen dute eta gehienetan talde lanean aritzen dira gustura. (E4)*

*Beste etorkin bat gelan bazegoen etorritako berria etorritako horrekin elkartzen zen, haiek haien artean elkartzen ziren. (E3)*

Sare publikoko irakasle batek komentatzen du haientzat urtero gertatzen zitzaien egoera zenez, haurren jokabidea ezin hobea zela haiek ere gertutik edo lehen pertsonan egoera antzeko bat bizi izan dutelako. Nolabait esateko, beste jatorrietako hurrek enpatia lantzen dute, besteak beste, egoera berean egon direlako. Ezinbestekoak dira gelakideei aurretik azaltzea haur berriaren egoera eta izan behar duten jarrera positiboaz gogoratzea. Garrantzitsua da talde bat direla jakinaraztea. Etorri berriek normalean asko eskertzen dute beste hurrekin egotea eta babes hori sentitzea. Ondorioz, esan dezakegu irakasleak haur etorkin berria etorri baino lehenago harrera prestatzen duela taldea ere egoera berrira egokitzeke.

*Umeei gelan lehenengo hitz egiten duzu haur bat etorriko dela, nola tratatuko dugun eta ze jolasak egingo ditugun. (E1)*

*Primerakoa, egia da saiatzen garela kontzientzia hau hurrekin elkar banatzen. Eta, bueno, etorri berria da, gogoratu lagundu behar diogula. O sea, nik jarraitzen ditudala pauso batzuk jarraitzen ditut talde kohesioa bermatzeko, baina nik bai, notatzen dut haur hauek daudela oso ohituta enpatia handia dute, hori beste eskoletan ez da gertatzen. (E2)*

*Hemen aniztasuna dagoenez, berehala ulertzen dute ze denek bizi izan dute horrelako zerbait hurbiletik lehenengo pertsonan eta orduan umeen harrera da izugarria. (E2)*

Hortaz, irakasleek hartzen duten beste neurria da ikaskide-lagun izendatzea. Normalean, gelan hizkuntzaren aldetik maila ona duen haurrari edo nortasunez jarrera abegikorra dutenari laguntza eskatzen die haur berriaz arduratzeko. Antza, bi irizpide hauen arabera erabakitzen dute “laguntzaile” izendatzea.

*Ikusten ditut euskara maila ona dutenak edo jarrera oso positiboak dutenak jartzen ditut pixkat ardura bezala ba ume horiekin egoteko talde txikietan laguntzeko baita ere ni ez nagoen momentuetan saiatzen naiz haiek talde kohesioa izaten. Adibidez, jantoki orduak direla zailena. Eta orduan asko markatzen diet garela ekipo bat eta dinamika hori; eta egia esan emaitza nahiko onak ikusi ditut. (E2)*

*Eta gainera izendatzen genuen nola zen hau? Lagun-embajadore bat edo halako zer orduan, umea heltzen zenean, beti zeukan beste ume bat alboan laguntzaile moduan, bueno laguntzaile entre comillas. (E3)*

*Badago "ikasle tutoreak" ikasle berriaren egokitzapen osoan laguntzen duena.(E4)*

### **5.3. Jarraitutako protokoloa**

Protokoloaz hitz egiterakoan, sare publiko irakasleak urtero haur bat edo gehiago kurtsoan zehar gelan hartzeko ohituta daudenez harrera egiteko jarraitu beharreko pausoak argi eta garbi zituzten. Itunpeko irakasle bat, berriz, zerotik hasi zen bere eskolan ez zutelako halako egoera aurretik bizi. Baina behin protokoloa ezarrita, emandako pausoak argiago ikusten ditu.

*Hasieran zen desastroso. "¡Búscate la vida! ¡Un stres! Gainera, eskolan be bai egon zen "como una revolución" porque tutoreak enteratzen ginen: Beitu! Kaixo, egun on! Heldu da haur berri bat zure gelara. Eeeh, ¿perdona? O sea, gaur goizeko 9etan esaten didazu ume berria etorri dela? Baina gero, hori ikusita, kasu asko zeudela, jarri genuen protokoloa martxan; eta behin protokoloa jarrita, gauzak hobeto ateratzen ziren. Egia da batzuk protokolo hori ez zutela ondo aurrera eramaten edo gauza batzuk egiten zituzten, beste gauzak ez. Hori da irakaslearen arabera. Baina egia da, askoz hobeto ateratzen zirela gauzak. (E3)*

*Egin genuen esku-hartze prozesu bat, harrera-prozesu bat. Eta, bueno, bai, Delegaritzak deitzen zuen eta esaten zigun bihar joango da bat. Guk hitz egiten genuen familiarekin eta eskatzen genion familiari egun batzuk geroago joateko eskolara, gu bitartean gauzak prestatzeko. Orduan familiarekin genuen bilera bat: familiak ezagutzen zuen tutorea, gero umea ere etortzen zen bebai familiarekin tutorea ezagutzeko eta pixka bat eskola ikusteko. Gero tutoreak gela barruan prestatzen zituen ekintzak. (E3)*

Arestian esan bezala, haurra eskolan hasi baino lehen, tutoreak gurasoekin bilera bat egiten du oso garrantzitsua dena eskola ezagutzeko eta egokitzapenaz mintzatzeko, orduan adosten baita gelan sartzeko denbora. Jarraian, haurra gelan sartzen da, baina poliki-poliki, hau da, egokitzapen-prozesuan haur berriak ez du ordutegi normala jarraitzen.

*Haur Hezkuntzan erabakitzen dugu egitea ba gutxinaka. Ba lehenengo egunean egotea bakarrik ordu erdi edo ordu bete. Familiarekin bilera, familiari erakutsi eskola eta gero pixka bat ikusi behar da ea hizkuntza daukan edo ez eta horren arabera*

*moldatzen dugu dena pixka bat gehiago. Saiatzen gara esaten jantokira ez apuntatzeko. (E2)*

#### **5.4. Komunikazioa familiarekin**

Komunikazioa Haur Hezkuntzan oso garrantzitsua da. Egunean zehar gertatzen diren gauzak edo haurra nola egon den jakinarazteko komunikatu behar da. Urtero bezala familien aldetik inplikazio gehiago edo gutxiago jaso ahal da. Baina hizkuntza bera ez menperatzeak zailtasun eta gaizki-ulertu asko sor ditzake. Horregatik, kasu honetan egiten dena da bide ezberdinak aurkitzea bidali nahi den mezua ondo ulertzeko. Honetan, eskola publikoetan irakasleak errazagoa du zubi-lana egiten den norbait ondoan izatea. Izan ere, posible da etorkin berrien gurasoen hizkuntza bera hitz egiten duen norbait topatzea. Gauzak horrela, laguntza eskatzen dio hizkuntza hori dakien familiako bati behar den informazioa bere hizkuntzan azaltzeko. Itunpeko eskolan, aldiz, mimikarekin eta Google-eko itzultzailearekin moldatu behar dira eta horrek, jakina, batzuetan gaizki-ulertu asko sortzen ditu. Dena den, itunpeko eskoletan ikasle etorkin gehienak hegoamerikarrak izanik, komunikazioa errazagoa da.

*Gmailak badakit ez dituela irakurtzen ezta ikusten. Entonces, beste ama batek bidaltzen dio (por wasapp las tengo como encargadas) azaltzeko. Eta orain, adibidez, egingo dugula irteera. Ba edo ama bat edo beste bat nik haiekin hitz egingo dut nola arduratuko den haurrarekin egoteko ekartzeko eta etortzeko. (E1)*

*Keinuen bitartez edo edozein teknika erabiltzen dut, traduktoreak ere erabiltzen ditut maiz. (E4)*

*Konturatu nintzen gelako baten amak hitz egiten duela hizkuntza berdina eta orduan hasi nintzen horren bitartez ba berarekin komunikatzen askoz hobeto. Eta nabaritzen da. (E2)*

Hasieratik garrantzitsua da konfiantzazko harreman bat sortzea familiarekin. Horrek asko lagunduko du haurraren egokitzapenean. Egia da familia batzuk ez dutela protokoloaren jarraibideak jarraitu nahi eta zuzenean bete-betea sartzten dituzte haurrak egutegi arrunta jarraituz. Akats izugarria da haurrak aurrera egin ordez atzera egiten dutelako. Garrantzitsua da familiak irakasleen gomendioak betetzea, haiek baitute egoera honetan eskarmentu handia.

*Aurten gertatu zait que ezetz ezetz eta ezetz eta lehenengo momentutik ordu guztiak eta jantokira. Eta ordun bueno, gutxitan gertatzen da, normalki onartzen dute baina egia da hor eskuak pixka bat lotuta. (E1)*

## 5.5. Baliabideak eta formazioa

Irakasle guztiak kexatzen ziren baliabide eta laguntza eskasa dutela eta haien zirela material guztia eta tresnak bilatzen eta prestatzen dituztenak. Batzuk Interneten ideiak ateratzen zituzten, beste batzuk jokoak egiten zituzten haurra integratzeko. Gero haurraren arabera, galduta badago laguntza eskatzen diete haien lankideei berarekin egoteko. Alde batetik, itunpeko irakasle batek eskolan etorri berriak hizkuntza ez dakien haurren kopurua gutxienez, beste irakasle bat daukatela berarekin soilik egoteko eta laguntza emateko. Bestetik, jubilatzeaz zegoen irakaslea publikoan egiten zuela lan esaten zuen hasieran etorkin gutxi zegoenean harrera moduan beste gela batera bidaltzen zirela hizkuntz maila pixka bat hartzeko eta behin hori edukita besteekin gelan sartzen zirela. Eta hori faltan botatzen zuela. Orokorrean, kexatu ziren laguntza faltagatik.

*Tutoreak prestatzen duena batez ere. (E1)*

*Ni hasieran interneten, interneten bilatzen nuen formazioa.(E3)*

*Etorkinak gutxi zirenean zeukatzen gela bat non erakusten zieten erderaz pixka bat.*

*Funtzionatzen zuen oso ondo ematen zieten tresna batzuk erderazkoa orduan joaten zirenean gelara ez ziren zerotik sartzen eta ni hori bai faltan somatuko nuke. (E1)*

*Nik uste baliabide asko ez ditugula eskoletan falta da nik uste figura bat harrera hauek egiteko dugun baliabide bakarra garelako gu, guk nola planteatzen dugun eta Haur Hezkuntzan egia da malgutasuna eskaintzen duela, dituen ezaugarriengatik baina ez du bereziko baliabiderik. (E2)*

*Egon beharko zela esan dudana bezala baliabide gehiago ba hasteko pertsona bat harrera hori egiteko ze nik bestela ordu libreetan egin behar dut eta askotan ez da justo momenturik egokiena, ze askotan umeak datoz lehenengo orduan eta orduan ba baliabide gehiago eskaintzea eta adibidez, egotea material gehiago prest familiei emateko ba hizkuntzan, nolakoa den eskola eta bueno nik uste hori daudela gabezi pila bat. (E2)*

Ondorioz, irakasle bakoitzak ahal duen moduan jokatzeko aukera du. Hori bai, irakasle guztiek bat egiten zuten esatean lan zama guztia haiei zuzenduta zegoela eta batzuetan laguntza behar zutela. Hasieran, behintzat, haurra egokitapenean dagoenean, beste irakasle baten laguntza izatea nahi izango lukete.

Ikastaroei eta formazioari buruz Berritzegunearen laguntza eskertzen dute errekurtsio materialak uzteagatik eta zenbait ikastaro antolatzeagatik. Baten batek aipatzen du Gasteizko Hezkuntza eta



Kirol Fakultatean ematen den Kulturartekotasunerako minorra, baina ahalegindu arren, ezinegona adierazten du hemengo familiek seme-alabak kontzertatuetara eramaten dituztelako.

*Berritzegunearekin harremanetan jarri eta, bai, haiek ikastaroak emateaz gain, zenbait baliabide eta sobre todo eh errekurtsio materialak ematen zizkiguten. (E3)*

*Nik uste magisteritzan ere gogoratzen dut bazegoela minor bat aniztasunaren inguruan kulturartekotasuna eta nik uste egiten dela. Kontua da ez dela nahikoa zergatik? Ba emaitzak ikusten ditugu familiak ari dira kontzertatura joaten. Ez ditugu onartzen, ez! Eta orduan zerbait orduan ez du funtzionatzen. Ez da nahikoa. (E2)*

## **5.6. Zailtasunak eta harrera-prozesuaren bideratzaileak**

### **5.6.1. Zailtasunak**

Zailtasunei buruz hitz egiterakoan, elkarrizketatutako irakasle guztiak ados zeuden hizkuntza ez jakitea oztoporik handiena dela. Haientzat Hegoamerikatik etortzen diren ikasle berriek errazagoa dute gaztelania menderatzen baitute. Dena den, EAEan bi hizkuntza ofizialak izateak (gehi ingelesa) egokitzapena ere zailtzen du, batez ere haurrak azkarrak ez direnean.

*¡Hombre! Hizkuntza bai. Amerikakoak direnean, gai dira komunikatzeko bai gurekin bai beste umeekin. Eta erderaz ez dutenei ulertzen gehiago kostatzen zaie. (E1)*

*Gaztelaniaz hitz egiten dutenek askoz errazago dute beste hizkuntza bat dutenek baino. (E3)*

*¡Pff mira! Umeak azkarrak direnean, berehala hartzen dute. Baina egia da batzuk ez direla hain azkarrak. (...) Adibidez, nigeriarrek askotan etxean hitz egiten dute tribu hizkuntzatan (el bini, daude pilo), ingelesa koloniarra. Gero, ona datoz eta euskara eta gaztelera (...). Baina batzuei kostatzen zaie “entonces, claro” zuk ikusten duzu puff (...) zama bat. (E1)*

Euskara ikasterakoan, aldiz, irakasle batek esaten du erraztasun askoz handiagoa dutela bi hizkuntz edo gehiago dakitenek bakarrik gaztelania dakitenek baino.

*Hainbat hizkuntza etxean edukitzeak asko errazten duela elebakarrak direnak oso zail dute kostatzen zaie pila bat bigarren hizkuntza bat menperatzea eta nik suposatzen dut egongo direla ikerketak horren inguruan ze da pasada bat. (E2)*

Irakasleen iritziz, hizkuntzak ez ezik, kultura-aldaketa ere oztopo bat da.

*Eta gero ohiturak eta erlijioa eta nik uste dut, adibidez, Hegoamerikarrek errazagoa dutela arabiarrek baino. Nik uste dut arabiarrek daukatela, pues hori: erlijio ezberdina, hizkuntza ezberdina, janzkera ezberdina. (E3)*

*Beste ume guztiak bezala giro berri batera egokitzea, baina claro, zen haien kasuan ez zen bakarrik eskolara egokitzea. Da bere herrialdetik etorri, beste herri batera moldatzea, herri horretako ohiturak, gero eskolara! Ume berriak... “pues, hombre” hori dena zaila. (E3)*

Beste zailtasun bat duelua pasatzea da, ikasle-etorkin berriak egoera behin-betikoa dela konturatzean.

*Ikusten dudana da haiek uste dutela oportetan etorri direla orduan normalean hasieran ematen da oso piko positibo bat eta handik gutxira hilabete bat pasatzen denean, bajoia nabaritzen dut. Konturatzen direlako hau dela betiko; eta oso ezberdina dela orduan. Nik uste dut dolu hori hasten dela pasatzen denean hilabete bat eta hor da izan behar garenean, fuerteago haiekin eta hor egon.(E2)*

Normalean, kurtsua behin hasita etortzen diren ikasle etorkinen familiek maila sozioekonomiko baxua dute. Pobreziak haurraren harrera ere oztopatzen du. Adibidez, egokitzapen-prozesuan haurrak ordutegi osoa betetzen duenean edo errefortzuak egiteke geratzen direnean, senideak lanean baitaude. Senide aberatsa denean, bazterketa eta gutxiespen hori alde batera geratzen da haien kultura bigarren plano batean utzita. Baina pobreak direnean, aurreiritzi eta bazterketa guztiak jasotzen dituzte.

*Nik uste hemen arazoa beti dela pobrezia: pobreei beldurra, pobreei “el rechazo”, bazterketa. Eta orduan errazago dute dirua dutenek. Dirua ez dutenek ez dituzte baliabideak eta horregatik hasieratik baztertzen zaie.(E2)*

*Zuk prestatzen zenituen gauzak, materialak errefortzua egiteko eta gero familiakoek ez zituzten egiten etxean: batzuk igual paso egiten zutelako, baina beste batzuk benetan ezin zutelako. Bakarrik lan egiteko denbora zuten umeak edo familia aurrera ateratzeko.(E3)*

## 5.6.2. Harrera-prozesuaren bideratzaileak

Gelako ikasleen kopuru txikiak errazten du haur berrien egokitzapena.

*Taldea txikia izatea. Ze ratioa 25ekoa izango balitz, nik uste gehiago baztertzen direla; haien artean taldetxo gehiago egiten direlako. Baina nola bakarrik diren 15! Hori ere izan zen oso klabea. (E2)*

Haur berri bakoitzak bere espazio segurua bilatu beharko du, norberarena, alegia. Batzuentzat txoko lasai bat izan daiteke banaka egoteko; beste batzuentzat, ordea, nahiago ikaskideekin harremanetan egon. Gauzak horrela, bati lagundu ahal dion baliabidea beste haur batentzat traba izugarria izan daiteke. Horregatik, ezinbestekoa da irakasleak behaketa sakona egitea gero nola jokatu behar den jakiteko. Errespetuzko begirada behar du izan irakasleak.

*Fitxa-txokoa edo marrazki-txokoa. Umea galduta badago, normalean da babes txokoa, ze hori da “rollo formal”: eserita zaude, eta umeez ez daukate mugimendurik. Entonces, haien burua ikusten dute oso babestuta. Eta horregatik, batzuk babesten dira hor, baina beste batzuk umeen jolas gehiago behar dute, beste umeekin egotea. (E1)*

*Berari lagundu dio jolas sinbolikoak. Sinbolikoa asko gustatzen zaio eta sinbolikoan praktikatzen zuen pila bat hizkuntza, lagunekin, eta baita ere patioan, eta dinamika, jolas horiekin. (E2)*

*Egia da 2-3 urte zituztela eta oraindik ume hauek nahiko independenteak direla, orduan nahiz eta talde lagun txikiak egon, haurrak normalean jolas paraleloan aritzen dira. Adin tarte honetarako egingo nukeena batez ere izango ziren korro-kantak, ipuinak kontatzea... (E4)*


Azkenik, dudarik gabe harrera-prozesua bideratzen duena da familiaren egoera afektiboa egonkorra izatea. Horrek haurrari segurtasuna ematen dio.

*Esango nuke jatorriak ez duela zertan eragina. Eragina dauka familiaren egoera eta umearen egoera. Familiak ematen badio segurantza umeari, eta umeak asebetetuta badago arlo guztietan, ondo eramango du egoera. Ume horiek karentziak izanda, berdin dio ze jatorri duten, kostatuko zaiela moldatzea. Eta hori ere gertatuko zaio*

*gure herrialdean jaiotako umeei, karentziak baditu, moldatzeko arazoak izango dituela ere. (E4)*

Laburbilduz, irudian ikus ditzakegu irakasle hauentzat zeintzuk diren zailtasun handienak eta harrera-prozesuaren bideratzaileak.

**6.irudia.** Zailtasunak eta harrera-prozesuaren bideratzaileak



## 6.ONDORIOAK

Hasteko, esan beharra dago elkarrizketak egin ahal izateko kurtsoan zehar haur berri baten harrera bizi izan duten itunpeko irakasleak aurkitzea asko kostatu zitzaidala. Izan ere, gehienetan kurtsoan zehar matrikulatzen diren haurrak beste kultura batetik etorritakoak dira. Hezkuntza Delegazioak haur horiek sare publikoan banatzen ditu. Sare publikoan lan egiten zutenek egoera hori behin baino gehiagotan bizi izan zuten eta urteroko egoera zela azpimarratzen dute.

Ikasturtean behin hasita etortzen diren haur etorkinak jaso ez ezik, gainontzekoak ere sare publikoak hartzen ditu gehienbat. Marko teorikoan ikusi dugunez, Azurmendik (2018) aipatzen du ikasle-etorkinen %80a eskolaratzen dela ikastetxe publikoan eta soilik %20a itunpeko ikastetxeetan. Hortaz, eta lau elkarrizketatuak entzun ondoren, esan dezakegu azkeneko bost urtetan egoera ez dela asko aldatu eta oraindik ere aldea dagoela kultur aniztasun kopuruan eskola itunpekoen eta publikoen artean. Hauxe da gaur egungo hezkuntzaren errealitatea.

Haur etorkin berrien jatorriari dagokionez, oinarri teorikoan ikusi bezala EAEan biztanle etorkinen kopururik handiena 2022. urtean Marokotik eta Kolonbiatik zetorren eta elkarrizketetan sare publikoan lan egiten dutenek Maroko aipatzen dute (baita Nigeria ere) eta itunpeko irakasleek, aldiz, Hegoamerika. Baliteke Garcíak eta Rubiok (2008) esandako baldintza bat betetzea: guraso etorkinek seme-alabak sare publikoan edo itunpekoan matrikulatzea alderdi erlijiosoaren eta soziokulturalaren arabera.

Ikasle-etorkin berriei harrera egiten ohituta daudenez, ematen du eskola publikoko irakasleek itunpekoek baino argiago dituztela jarraitu beharreko protokoloaren pausoak: familiakoekin hitz egin, familiak eskola ezagutzea, haurrak gurasoekin eskola ezagutzea, taldea prestatzea (informatu eta kontzientziatu), talde-kohesioa indartzeko lehenengo jarduerak diseinatzea, ikaskide-laguna izendatzea eta egokitzapena bermatzea, besteak beste.

Bukatzeko, esan behar da Haur Hezkuntza dela etaparik onena benetako inklusioa eman dadin. Izan ere, haurrek oraindik ez baitute inolako aurreiritzirik.

## **7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK**

Lehenengoa izan daiteke lagina handitzea, irakasle gehiago elkarrizketatuko nituzke ikerketaren ondorioetan segurtasun gehiago izateko. Horrez gain, gustatuko litzaidake familien esperientzia nolakoa den ezagutzea. Interesgarria izango litzateke haiei ere elkarrizketak egitea beren ikuspuntua zein den jakiteko.

Bigarrena, Lehen Hezkuntzarako eta Haur Hezkuntzarako indarrean dagoen protokoloan oinarrituta, Haur Hezkuntzari zuzendutako protokolo espezifikoak idatziko nuke etapak dituen berezitasunak kontuan hartuko dituenak. Amaitzeko, material ezberdinak prestatuko nituzke ikasle-etorkin berriei egokitzapenean laguntzeko.

## 8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Azurmendi, E. (2018ko otsailak 3). La escuela pública es la que asume la integración, pero sin medios. *El Diario*. Webgune honetik eskuratua: [https://www.eldiario.es/euskadi/euskadi/escuela-publica-asume-inmigracion-medios\\_1\\_2809174.html](https://www.eldiario.es/euskadi/euskadi/escuela-publica-asume-inmigracion-medios_1_2809174.html)
- Barquín, A. eta Ruiz, U. (2009). Hizkuntzen kudeaketa eskolan. *Tantak*, 21 (1), 7-21.
- Besalú, X. (2002). *Diversidad cultural y educación*. Síntesis.
- Besalú, X. eta Vila, I. (2007). *La buena educación: libertad e igualdad en la escuela del siglo XXI*. Los Libros de la. Catarata.
- Blanco, R. (2006). La equidad y la inclusión social: uno de los desafíos de la educación y la escuela hoy. *REICE. Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 4 (3), 59-68.
- Carrasco, S., Pàmies, J., Bereményi, B. Á., & Casalta, V. (2012). Más allá de la matrícula viva. La movilidad del alumnado y la gestión local de la escolarización en Cataluña. *Papers: Revista de Sociología*, 97(2), 311-341.
- Chaves-Montero, A. (2018). La utilización de una metodología mixta en investigación social, In Delgado, W. eta Vera, S. (Koor.). *Rompiendo barreras en la Investigación*, 164-184.
- Coelho, E. (2016). *Eskola kulturantzunetan irakastea eta ikastea*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Cordero, M. C. (2012). Historias de vida: Una metodología de investigación cualitativa. *Revista Griot*, 5(1), 50-67.
- Cummins, J. (2002): *Lenguaje, poder y pedagogía. Niños y niñas bilingües entre dos fuegos*. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

Datos.macro.com España Inmigración 2020.

<https://datosmacro.expansion.com/demografia/migracion/inmigracion/espana>

Eusko Jaurlaritza (2020). *Ikasle berrien eta haien familien harrera bideratzeko jardunbideak.*

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_esc\\_inclusiva/eu\\_def/adjuntos/eskola-inklusiboa/plan\\_acogida\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusiboa/plan_acogida_e.pdf)

Eusko Jaurlaritza (2019). *Heziberri 2020. Hezkuntza eredu Pedagogikoa. Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa saila.*

[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_sist\\_educativo/es\\_def/adjuntos/000009c\\_Pub\\_EJ\\_heziberri\\_2020\\_c.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_sist_educativo/es_def/adjuntos/000009c_Pub_EJ_heziberri_2020_c.pdf)

Eusko Jaurlaritza (2019). *Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Plana 2019-2022.* Vitoria-Gasteiz:Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa saila, Eusko Jaurlaritza.

[https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/eu/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N\\_LIBR=052386&N\\_EDIC=0001&C\\_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf](https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/eu/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=052386&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf)

Eusko Jaurlaritza. (2021/22). *eustat.com.* Alumnado matriculado en enseñanzas no universitarias en la C.A. de Euskadi por titularidad del centro y nivel de enseñanza, según territorio histórico y sexo.

[https://www.eustat.eus/elementos/ele0019500/alumnado-matriculado-en-ensenanzas-no-universitarias-en-la-ca-de-euskadi-por-titularidad-del-centro-y-nivel-de-ensenanza-segun-territorio-historico-y-sexo-202021/tbl0019598\\_c.html](https://www.eustat.eus/elementos/ele0019500/alumnado-matriculado-en-ensenanzas-no-universitarias-en-la-ca-de-euskadi-por-titularidad-del-centro-y-nivel-de-ensenanza-segun-territorio-historico-y-sexo-202021/tbl0019598_c.html)

García Castaño, F. J., eta Rubio Gómez, M. (2008). Población inmigrante y escuela en España: un balance de investigación. *Revista de Educación*, (345) 23-60.

Gobierno de España (2020/21). *Distribución del alumnado extranjero por Administración educativa.* Ministerio de Educación y Formación profesional.  
<https://www.educacionyfp.gob.es/mc/redie-eurydice/sistemas-educativos/contexto/alumnos-extranjeros.html>



Instituto Nacional de Estadística (2022). *Evolución de la población en España*  
[https://www.ine.es/prensa/cp\\_e2022\\_p.pdf](https://www.ine.es/prensa/cp_e2022_p.pdf)

Iñiguez, L. (2004). El debate sobre metodología cualitativa versus cuantitativa. *Curso de Investigación Cualitativa: Fundamentos, Técnicas, Métodos*.

Larrea, K., Etxebarria, A., Romero, A., Gaminde, I. eta Garai, U. (2013). *Hizkuntza etorkinak: azterketa eta erabilera didaktikoa*. EHU. <http://hdl.handle.net/10810/11191>

Lovelace, M. (2002). La escuela pública debe ser la escuela de todas y todos. Atención a la diversidad social y cultural. *Cuadernos de Trabajo Social*. (15), 177-184.

Martín, L. (dir.) (2003). *¿Asimilar o Integrar?* Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

Ministerio de inclusión, seguridad social y migraciones.  
[https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/estadisticas/operaciones/certificado/202012/Principales\\_resultados\\_residentes.pdf](https://extranjeros.inclusion.gob.es/ficheros/estadisticas/operaciones/certificado/202012/Principales_resultados_residentes.pdf)

Moreno, G. (2017). *Adituen Ikuspegia. Haur eta Gazteen aniztasuna EAEn bigarren belaunaldiak*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikuspegi, Eusko Jaurlaritza.

Muntaner, J. J. (2000). La igualdad de oportunidades en la escuela de la diversidad. *Profesorado: revista de currículum y formación del profesorado*, 4 (1), 1-19.

Observatorio Vasco de Inmigración. (1998-2022). Evolución de la población de origen extranjero en la CAE, por TT. HH. y sexo. *Ikuspegi.eus*. [https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/castellano/2022/Evolucion\\_provinciaysexo2022.pdf](https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/castellano/2022/Evolucion_provinciaysexo2022.pdf)

Observatorio Vasco de Inmigración. *ikuspegi.eus*. Estadísticas:  
[https://ikuspegi.eus/es/estadisticas/estadisticas\\_tablas.php?2022=&2021=&2020=&2019=](https://ikuspegi.eus/es/estadisticas/estadisticas_tablas.php?2022=&2021=&2020=&2019=)

Pérez Andrés, C. (2002). Sobre la metodología cualitativa. *Revista Española de Salud Pública*, (76) 373-380.

Quintana, A. (2006). Metodología de investigación científica cualitativa. In Quintana, A. eta Montgomery, W. (Ed.) *Psicología: Tópicos de actualidad*, 47-84.

Solé, C., Alcalde, R., Pont, J., Lurbe, K., & Parella, S. (2002). El concepto de integración desde la sociología de las migraciones. *Migraciones*, (12) 9-41.

Terrén, E. (2002). El racismo y la escuela: clima, estructura y estrategias de representación. *Migraciones*, (12) 81-102.

Terrén, E. (2004). *Incorporación o asimilación. La escuela como espacio de inclusión social*. Los libros de la Catarata.

Wagman, D. (2004). Integración e inmigración. *Texto para el Seminario Inmigración y Seguridad*, 1-15.

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 15a, 9. zk., 1-47 <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>

## **9.ERANSKINAK**

### **9.1.Elkarrizketa (E1)**

AURKEZPENA: Kaixo Jone naiz, Gradu Amaierako lana egiten ari naiz, aniztasunari buruzkoa. Gai honi buruzko elkarrizketa bat egin nahi nizuke. Elkarrizketa hasi aurretik, bi gauza aipatu nahi nituen: lehenengoa da elkarrizketa hau anonimoa dela eta zure datuak edo zure ikastetxeak ez direla lanean agertuko.

-ESKOLA PUBLIKO BATEAN EDO KONTZERTATU BATEAN EGIN DUZU LAN? ALDEA IKUSI DUZU ANIZTASUNAREN INGURUAN? KONKRETUKI ZEIN GAUZATAN ANTZEMAN DITUZU DESBERDINTASUNAK? ADIBIDEZ, BALIABIDEETAN? NON DAUDE GEHIAGO?

Publikoan. Ni hori bakarrik kanpotik esan ahal dut, baina por ejemplo justo ondoan daukagu kontzertatu bat eta hor etorkinak ez daude eta guk daukagu kopuru nahiko potentea. Eta eskola horretatik batzutan arazoak izan dituzte umeak nahiz eta hemengoa izan batzutan bidali diete gure eskolara esanez gu medio gehiago ditugula eta horrelako gauzak.

-ETA GAUR EGUNGO ZURE ESKOLAKO ANIZTASUNEZ HITZ EGITEN BADUGU, ASKO AL DAGO? ZEINTZUK DIRA JATORRI NAGUSIENAK?

Gure eskola hasieran hasi zen kopuru gutxirekin eta oso aberatsa zen egia da egiten genituen, gonbidatzen genituen familia etortzera. Nik behin egin nuen Afrikako jai bat eta etorri ziren hango bazkaria jaten, hango arropa janzten eta oso polita da zeren horrela gure burua irekitzen da eta umeak gainera dauden momentuan haiek ez dute bereizten nongoak, nortzuk diren hemengoak eta nortzuk ez. Eta holako ekintzak egiten zabaltzen familiei familiak ere bai daukate aukera besteek ikusteko eta ikusteko que no nos separa tanto no? Askoz hurbilagoa eta orain egia da daukagu kopuru handia baina batzuetan ordezkoak edo beste irakasleak pasatzen direnean hemendik esaten dute beste eskoletan kopuru handia denean dago giro pixka bat igual tristeago edo ez dakit zer. Baina hemen mantendu dugu oraindik giroa super majo eta nire ustez haiek super gustura sentitzen direla. Haiek esaten dute, bai.

-KURTZOAN ZEHAR ETORRITAKO HAUR BATEN EGOERA BIZI IZAN DUZU? NOLAKOA IZAN ZEN HARRERA? ETA EGOKITZAPENA?

Bai, hori gertatzen da, haur hezkuntzan gertatzen da baina batez be gertatzen da lehen hezkuntzan gure eskolan eta horrek kalte gehiago egiten du zeren batzutan ailegatu egin dira

6. mailara hizkuntza jakin gabe eta gero hemen euskaraz eta erderaz batera ikasten dute. Ez da Bermeora edo Ondarroara joaten badira ba euskaraz murgiltzen dira eta askoz errazagoa da baina hemen bat batean bi hizkuntza eta potentea da. Gu Haur Hezkuntzan bai daukagula gure protokoloak egiten dugu bilera bat haiekin sartu baino lehen komentatzen diegu posible bada lehenago pasatu eskolatik ezagutzeko eta haiek jakiteko eta ez izateko pues fantasma mamua buruan zer aurkituko dudan no? Ikusteko, hitz egiteko errealitateaz zeren batzuetan gauza politak esaten dute eta gero etortzen dira eta igual ez dira hain politak umeentzako. Errealitatea ikusteko gauzak esan eta gero bilera izaten dute eta gero daukagu ordutegi bat eta ordutegi hori moldatzen da segun umea nola joaten den. Esan nahi dut, ba oso gaizki badin badago hasieran bueno beti da asteetan denbora gutxiekin baina hasieran segun 3 urtekoa edo 5 urtekoa ere bai ezberdina da pues ematen diezu aukera familiei etortzeko eta egoteko gelan gero egoteko igual pasabidean. Eta bueno niri beti gustatu egin zait batzuetan umeak daude ya super gustora baina eskolatik alde egitea zeren horrela geratzen dira gogoeekin eta ez itzarotea nekatu arte. Baina bai egia da, eta aurten gertatu zait hemengo zen, baina o sea gu hori proposatzen dugu eta normalki errespetatzen dute. Baina egia da, gurasoek esaten baldin badute ezetz o sea guk ezin dugu ezer egin baina ba aurten gertatu zait que ezetz ezetz eta ezetz eta lehenengo momentutik ordu guztiak eta jantokira. Eta ordun bueno, gutxitan gertatzen da, normalki onartzen dute baina egia da hor eskuak pixka bat lotuta, o sea esan nahi dut batzuetan gurasoek pentsatzen dute umeek ahal dutela jasan den-dena eta ez da hori, dira umeak eta gauzak ondo hasieratik egiten badira gero ondorioak hobetoak dira baina bueno batzuetan kostatzen da eta legea gure partez ez dago. Ah! Ematen diegu ere bai orla bat sartu baino lehen beste umeak ezagutzeko, gelako orla, horrela ezagutzen dute nor den eta izenak ere bai.

**-NOLA IKUSTEN ZENUEN? ZEINTZUK ZIREN BERE JARRERAK? ZEINTZUK BERE EMOZIOAK?**

Hori depende umea, segun ba zabala bada, irekia, bakoitza ezberdina da esan nahi dut, ze bizi izan duten ze batzuk ba egoerak nahiko larriak bizi izan dituzte jo es que batzuk nik izan ditut batzuk que familia osoa bizi da lo gela batean o sea ez dakit bakoitzaren egoera ezberdinak dira baina normalki umeek eskertzen dute beste umeekin egotea. Hori da normalena.

**-DUELORIK BA AL DAGO? NOLA EGITEN DIO HAURRAK AURRE DUELOARI? ZENBAT IRAUTEN DU DUELOAK?**

Dolua bueno guk daukagu hemen liburu batzuk eta ekintzak egiteko ariketak.

### -ZE BALIABIDE IZAN ZENITUEN? NOLA JOKATU ZENUEN?

Tutoreak prestatzen duena batez ere. Zuzendaritza taldeak bai onartzen du guk egutegi berezi bat izatea horrela baina esaten dizut beste aldetik gurasoek esaten badute ezetz, ezetz da. Jende aldetik, umeari kostatzen bazaio pues igual eskatzen dugu mesede bat andereño bati edo lankide bati errefortzu bat egiteko egun hauetan edo edozer. Baina ez pentsa arazorik handirik izango dugunik. Gurasoak etortzen badira eta ematen badiozu aukera egiteko bakoitza behar duen denborarekin ondo onartzen dute.

### -ZER ALDATUKO ZENUKE PROTOKOLO HORI HOBETZEKO?

Ba lehen esan dizudana behartuta izatea gurasoak ez sartzeko horrela modu gogor batean. Ez dakit, eskolan lehen aintzinean, etorkinak gutxi zirenean zeukaten nahiz eta gero beste eskola batera joan hemen zegoen gela bat non erakusten zieten erderaz pixka bat garai hartan zen B edo A eredia eta kanpotik etortzen zirenak A eredia sartzen ziren, batez ere. Entonces, ematen zieten eta gainera funtzionatzen zuen oso ondo ematen zieten tresna batzuk erderazkoa orduan joaten zirenean gelara ez ziren zerotik sartzen eta ni hori bai faltan somatuko nuke. Gelara sartu baino lehen zerbait, porque bat-batean o sea entzuten dute hizkuntz bat que gainera gero kalean ez dute entzungo o sea esan nahi dut entzuten da baina gutxi. Entonces, holako gauzak ondo dago izateko como gela bat lehen zegoen bezala, gela bat non behintzat erakusteko gauza batzuk gelara sartzeko euskara ez izateko gauza ezezagun bat. O sea pixka bat: “ni naiz tal, 5 urtekoa, bizi naiz, Aljeriatik nator...” Ulertzen? O sea izateko entzunda hitz batzuk, oinarri bat eta gero gelan sartzea. Baina egia da, lehen kopurua gutxia zela orain kopuru oso handia denez eta murrizketekin ez dakit. Baina ondo legoke sartu baino lehen prestakuntza txiki bat izatea.

### - ARLO HORRETAN FORMATUTA ZAUDETE? BA AL DIRA IKASTARORIK?

Batzutan egin ditugu, gutxi, la verdad es que gutxi. Ni gogoratzen naiz behin egon nintzen berritzegunean egiten bat eta ikastaro guztietatik batzuetan oso onak dira besteetan bueno baina guztietatik ateratzen duzu gauza bat eta nik gogoratzen naiz ikastaro horretatik beste gauzen artean baina niretzako garrantzitsuena izan zen batzuetan gure burua ikusten dugula eredu formarena edo como benetako eredia eta igual epaitu egiten dugu beste kulturakoek egiten dutena, o sea ez modu txarrean baina esaten duzu fijate ez da etorri edo ez du ulertu ez dakit zer eta klaro haiek dituzte beste ohiturak entonces haiek por ejemplo erlojua ez dute guk bezala begiratzen edo por ejemplo etxeko lanak igual orain familia honen Gasteizen daude

pues a ver zer egin duzu eta nora joan zara eta haiek beste kultura batetik datoz. Eta ez dute gaizki egiten zeren nire aitona amonak holakoak ziren baina esaten dugu jo es que ez dute egiten. Edo beste gauza bat oso inportantea gogoratzen naiz o sea, zuk hitz egiten duzu haiekin eta ematen du ulertu dutela zeren gainera gai dira errepikatzeko zuk esan duzuna baina haiek ez dute ezer ulertu o sea: “badakizu zer esan dudan? Bai esan duzu ez dakit zer” baina ez dute ulertzen eta hori kontutan izan behar dut. Entonces por ejemplo, daukat neska bat que beti beste bide bat bilatu behar dut adibidez aurreko egunean sinatzeko badakit arazoak dituela orri bat datuak jartzen dituzu eta tal, edo Gmailak badakit ez dituela irakurtzen ezta ikusten entonces, beste ama batek bidaltzen dio por wasapp las tengo como encargadas. Azaltzeko eta orain adibidez egingo dugula irteera ba edo ama bat edo beste bat eh nik haiekin hitz egingo dut nola arduratuko den haurrarekin egoteko ekartzeko eta etortzeko. Es que esan nahi dut zuk batzuetan ezin duzu jokatu besteak bezala porque ez dute bizi zuk bizi izan duzuna. Eta por ejemplo ikastaro honetan esaten zuten gauza bera hizkuntzarekin umeekin batzuetan gai dira errepikatzeko itzultzeko eta ez dakit zer baina berez ez dute oso ondo ulertzen zeren lenguaia ez da bakarrik hitza dauka mezu bat eta horretarako dago kultura gauza batzuekin gehituta entonces zuk que va ulertu du badaki ez ez dakit bakarrik itzuli egin du.

**-BESTE HAURREK NOLA JOKATU ZUTEN? NOLAKO HARREMANA IZAN ZUEN HAURRAK BESTE KLASEKIDEEKIN?**

Ba normalean ilusioa egiten die ume berri bat etorriko dela nahiko irekita egoten dira eta gero ya depende umea, ze uma da atsegina bada, jolastu nahi duen hala ez dakit zer, baina normalean umeei gelan lehenengo hitz egiten duzu haur bat etorriko dela, nola tratatuko dugun eta ze jolasak egingo ditugun eta ez dakit zer eta normalean gogoekin hartzen dute eta gero umearen arabera.

**-HARREMANAK ESTUAGOAK EGITEKO EDO HAURRA TALDEAREN BARNE SENTITZEKO PROPOSAMENIK DITUZU?**

Bai, hasieran egiten ditugu jokoak eta horrela umea parte hartzeko bai.

**-KOMUNIKAZIOA NOLAKO IZAN ZEN HAURRAREN FAMILIAREKIN? ETA FAMILIAREN EGOERA NOLAKO DA? ZER JARRERA IZATEN DUTE?**

Es que depende, etorkinak esaten ditugunean etorkinak ematen du guztiak berdin direla baina haien artean ezberdintasun asko daude. Batzuk etortzen dira kultura pilo batekin, heziketa oso

onarekin gu baino askoz gehiago zeren badakizkitez ez dakit zenbat hizkuntza eta klaro haiekin hemengoekin bezala daude batzuk que bueno haien kultura pobreagoa dela ezta eta bizipenak baina egia da beti esaten dut, esaten didatenean ba zuk etorkinekin lan egiten duzu baina lo fundamental berdin berdinak gara. Pertsonak gara eta emozioetan elkartzen gara. Esan nahi dut zure adibidea pues gogoratzen naiz por ejemplo familia batekin hitz egiten zidan nola sentitzen zen zeren bere gurasoak Nigeriakoak ziren eta zituen emazte batzuk eta haurra zen azken emaztearen alaba no? Eta bere ahizpa nagusia baztertzen zituen eta horrela sentitzen zen. Baina ni horrekin ulertzen nuen zeren ni beste egoera desberdin batekin sentimendu hori sentitu izan dut. Azkenean nos encontramos. Edo pues zuk nahi duzu hoberena seme-alabentzako eta haiek ere entonces o sea zuk kentzen baduzu beloa eta kentzen baduzu azaleko kolorea es que gara berdinak. Eta emozioak dira berdinak. Eta nik esperientzia super politak aukera izan dut bizitzeko. Gogoratzen naiz etorkinak etortzen hasi zirenean ama bat izan nuen nagusiarekin eta gero txikiarekin nagusia etorri zen kurtso nahiko hasita eta gero izan nuen hurrengoa eta egun batean bera esan zidan eskerrik asko zure irrifarreagatik. Eta badakizu zergatik esaten zuen hori porque haiek klaro guk ez gara konturatzen baina haiek beloarekin doazenean kalean jendeak ez dute esaten baina haiek ikusten dute begirada gogorra entonces onartzea parece una bobada pero etortzen direnean eta ikusten dute zuk besteak bezain ondo tratatzen dituzula eta ez duzula bereizketarik egiten jo ba eskertzen dute pilo, jo norbaitek pertsona bezala tratatzen nau.

**-HIZKUNTZAREN ALDETIK NOLA KOMUNIKATZEN ZINEN HAURRAREKIN? ZEIN ZEN BERE AMA HIZKUNTZA? HAURRAK ZAILTASUNAK DITUZTE ELEDUN IZATEKO?**

Pff mira umeak azkarrak direnean berehala hartzen dute baina egia da batzuk ez direla hain azkarrak eta ez da bakarrik hizkuntza gehienetan daukate 4 edo 5 hizkuntza adibidez Nigeriarrak askotan etxean hitz egiten dute tribu hizkuntzatan (el bini, daude pilo) ingelesa koloniarra gero ona datoz eta euskara eta gazteleraz eta Kongokoak badira Frantzesak eta hemen baita ingelesa. Ordun, azkarrak direnak pues es una pasada porque da diplomatuen seme-alabak bezala baina batzuei kostatzen zaie entonces klaro zuk ikusten duzu puff bi hizkuntza izango balira baina bat batean es que euskaraz, arabiarrez, ez dakit zer kostatzen zaienei la verdad es que da zama bat. Eta besteak pues normalean hemengo umeak etortzen bakarrik hemengoak zirenean lehenengo momentutik euskaraz hitz egiten diogu. Eta berdin jokatzen dugu. Bueno hau Haur Hezkuntza delako Lehen Hezkuntza da beste historia bat.

-ZER ZAILTASUN ETA ERRAZTASUN IZAN ZITUEN HAURRAK? ETA IRAKASLE ZAREN ALDETIK? NOLAKO GARAPENA ETA AURRERAPENAK EGIN ZITUEN?

-ZERK LAGUNDU ZION GEHIEN? NON JARRI ZENUEN BEGIRADA? ZEIN ESPAZIOTAN EROSOAGO SENTITZEN ZEN?

Jo eske depende asko nolakoa den umea ume batzuk oso babestuta daude beste umeekin jolastera joaten direnean beste batzuk zure ondoan egoten dira lehenengo momentutik ba bueno zuk ematen diozu denbora eta espazioa hori segun umea begiratu behar duzu adibidez, fitxa txokoa edo marrazki txokoa umea galduta badago normalean da babes txokoa ze hori da rollo formal eserita zaude, eta umeek ez daukate mugimendurik entonces haien burua ikusten dute oso babestuta. Eta horregatik batzuk babesten dira hor baina beste batzuk umeen jolas gehiago behar dute beste umeekin egotea.

-ORO HAR, USTE DUZU JATORRI BATZUK ERRAZAGO DUTELA ETA BESTE BATZUK ZAILAGO DUTELA EDO EZ DAGO DIFERENTZIARIK? ZERGATIK?

Hombre hizkuntza bai, Amerikakoak direnean gai dira komunikatzeko bai gurekin bai beste umeekin eta erderaz ez dutenak ulertzen gehiago kostatzen zaie. Gero depende ze batzuk oso lotsatiak dira eta nahiz eta Argentinakoak izan edo ez dakit zer kostatzen zaio bere nortasunagatik eta igual arabiar bat da super zabala eta esfortzu handia egin du eta klaro hizkuntza bada.

-GAI HONEN INGURUAN KONTATU NAHI AL DUZU ZERBAIT GEHIAGO?

AGURRA: Mila esker zure denboragatik eta erantzunengatik beharrezkoa izango da lana aurrera eramateko. Lana bukatutakoan bidaliko dizut emaitza.



## 9.2.Elkarrizketa (E2)

-ESKOLA PUBLIKO BATEAN EDO KONTZERTATU BATEAN EGIN DUZU LAN?  
ALDEA IKUSI DUZU ANIZTASUNAREN INGURUAN?

Egiten dut lan beti egin izan dut lan publikoan eta baina bai kanpotik ikusita aldea oso handia da. Kontzertatuetan ez dago apenas atzerritarrik eta publikoetan dago gehiengoa.

KONKRETUKI ZEIN GAUZATAN ANTZEMAN DITUZU DESBERDINTASUNAK?  
ADIBIDEZ, BALIABIDEETAN? NON DAUDE GEHIAGO?

-ETA GAUR EGUNGO ZURE ESKOLAKO ANIZTASUNEZ HITZ EGITEN BADUGU,  
ASKO AL DAGO?

Bai, oso eskola anitza da baina zentzu onean noski, ez bakarrik jatorri ezberdinengatik baizik eta ditugulako behar bereziko umeak, familia ezberdinak eta anitza eta polita da bai.

-ZEINTZUK DIRA JATORRI NAGUSIENAK?

Jatorri nagusienak normalean bada Maroko eta Nigeria.

-KURTZOAN ZEHAR ETORRITAKO HAUR BATEN EGOERA BIZI IZAN DUZU?

Bai aurtan hiru matrikula izan ditut kurtsoan zeharrekoak.

-NOLAKOA IZAN ZEN HARRERA?

Lehenengoa etorri zen iraila bukaeran eta harrera bezala ba bueno Haur Hezkuntzan erabakitzen dugu egitea ba gutxinaka ba lehenengo egunean egotea bakarrik ordu erdi edo ordu bete familiekin bilera, familiari erakutsi eskola eta gero pixka bat ikusi behar da ea hizkuntza daukan edo ez eta horren arabera moldatzen dugu dena pixka bat gehiago. Saiatzen gara esaten jantokira ez apuntatzeko. Baina bai egia da ikusten ari garela ba gurasoek sartu nahi dituztela umeak de pleno hasieratik eta horrek nire ustez egokitzapena nahiko oztopatzen du.

-NOLA IKUSTEN ZENUEN? ZEINTZUK ZIREN BERE JARRERAK? ZEINTZUK BERE  
EMOZIOAK?

Bale, orduan zentratuko naiz kasu batean. Bale honen kasuan eta nik hori ikusten dut beti garrantzitsua izan zen bere jarrera. Adibidez beste bi kasuak izan ditudanak haien jarrera izan da oso itxia, beldurra, lagunak egiteko zailtasunak eta horrek dena zailtzen du. Aldiz, honen kasuan, ba oso neska alai da, oso bizia, nahi du jolastu, nahi du parte-hartu, ez du ezer galdu nahi orduan, hasieratik izan zen magikoa ikustea jolas guztietan nola hartzen zuen parte hizkuntza jakin gabe ez? Orduan, bere harrera izan zen %100 ona.

**-DUELORIK BA AL DAGO? NOLA EGITEN DIO HAURRAK AURRE DUELOARI? ZENBAT IRAUTEN DU DUELOAK?**

Ba bai, egoten da nik haur hezkuntzan ikusten dudana da haiek uste dutela oportetean etorri direla. Orduan normalean hasieran ematen da oso piko positibo bat eta handik eta gutxi gorabehera hilabete bat pasatzen denean bajoia nabaritzen dut. Konturatzen direlako hau dela betiko eta oso ezberdina dela orduan, nik uste dut dolu hori hasten dela pasatzen denean hilabete bat eta hor da izan behar garenean fuertego haiekin eta hor egon

**-ZE BALIABIDE IZAN ZENITUEN? NOLA JOKATU ZENUEN?**

Bueno nik uste baliabide asko ez ditugula eskoletan falta da nik uste figura bat harrera hauek egiteko dugun baliabide bakarra garelako gu, guk nola planteatzen dugun eta Haur Hezkuntzan egia da malgutasuna eskaintzen duela, dituen ezaugarriengatik baina ez du bereziko baliabiderik.

**-PROKOTOLOREN BAT JARRAITU ZENUEN? ZEIN? BALIAGARRIA IZAN ZEN?**

Badakit badaudela protokoloak baina Haur Hezkuntzan nahiko malgua da gai hau orduan, ez ditugu gauzakerrela puntuz puntu jarraitzen. Eta gainera ez da beharrezkoa Haur Hezkuntzara etortzea horregatik, ba jarraitzen dugu pixka bat gure eskolaren bidea, gure artean hitz egiten duguna eta hori.

**-ZER ALDATUKO ZENUKE PROTOKOLO HORI HOBETZEKO?**

Nire kasuan, egon beharko zela esan dudana bezala baliabide gehiago ba hasteko pertsona bat harrera hori egiteko ze nik bestela ordu libreetan egin behar dut eta askotan ez da justo momenturik egokiena, ze askotan umeak datoz lehenengo orduan eta orduan ba baliabide

gehiago eskaintzea eta adibidez, egotea material gehiago prest familiei emateko ba hizkuntzan, nolakoa den eskola eta bueno nik uste hor daudela gabezi pila bat.

- ARLO HORRETAN FORMATUTA ZAUDETE? BA AL DIRA IKASTARORIK?

Badaude geroz eta gehiago gainera nahikotxo urte pasa dira hasi zirenetik ba atzerritarrak etortzen Gasteiza eta nik uste magisteritzan ere gogoratzen dut bazegoela minor bat aniztasunaren inguruan kulturartekotasuna eta nik uste egiten dela. Kontua da ez dela nahikoa zergatik? Ba emaitzak ikusten ditugu familiak ari dira kontzertatura joaten ez ditugu onartzen ez eta orduan zerbait orduan ez du funtzionatzen ez da nahikoa.

-BESTE HAURREK NOLA JOKATU ZUTEN? NOLAKO HARREMANA IZAN ZUEN HAURRAK BESTE KLASEKIDEEKIN?

Oso ondo, super ondo primerakoa, egia da saiatzen garela kontzientzia hau hurrekin elkar banatzen eta bueno etorri berria da, gogoratu lagundu behar diogula, o sea nik jarraitzen ditudala pausu batzuk jarraitzen ditut talde kohesioa bermatzeko baina nik bai nabaritzen dut haur hauek daudela oso ohituta enpatia handia dute, hori beste eskoletan ez da gertatzen. Hemen aniztasuna dagoenez, berehala ulertzen dute ze denek bizi izan dute horrelako zerbait hurbiletik lehenengo pertsonan eta orduan umeen harrera da izugarria.

-HARREMANAK ESTUAGOAK EGITEKO EDO HAURRA TALDEAREN BARNE SENTITZEKO PROPOSAMENIK DITUZU?

Ba nik uste oso garrantzitsua dela haurrak kontzientziaztea hasiera batean kontatzea zer den bakarrik egotea, hizkuntza ez ulertzea gero nik adibidez, jartzen ditut ardura txiki batzuk ez ba ikusten ditut euskara maila ona dutenak edo jarrera oso positiboak dutenak jartzen ditut pixkat ardura bezala ba ume horiekin egoteko talde txikietan laguntzeko baita ere ni ez nagoen momentuetan saiatzen naiz haiek talde kohesioa izaten adibidez, jantoki orduak direla zailena. Eta orduan asko markatzen diet garela ekipo bat eta dinamika hori eta egia esan emaitza nahiko onak ikusi ditut.

-KOMUNIKAZIOA NOLAKO IZAN ZEN HAURRAREN FAMILIAREKIN? ETA FAMILIAREN EGOERA NOLAKO DA? ZER JARRERA IZATEN DUTE?

Bueno ba familia honen kasua oso ona izan zen. Aitaren kasuan gaztelania hitz egiten du baina beti dago lanean. Orduan ama izan da etorri dena, amak ez du ezer ez ulertzen saiatu nintzen Google traduktorearekin eta ez ginen ulertzen, mimika egiten oso zaila izan zen

hasiera. Orduan egiten nuena izan zen bere senarrari telefonoz deitu edo Wastsapak bidali emaztearen telefonotik eta izan zen zaila. Azkenean erabaki nuen aitarekin bilera bat egitea ze bestela gaizki ulertu pila genituen baina gauza normalen inguruan ba amantala ekarri edo ez edo zer erosi eta gero handik eta denbora batera konturatu nintzen gelako baten amak hitz egiten duela hizkuntza berdina eta orduan hasi nintzen horren bitartez ba berarekin komunikatzen askoz hobeto. Eta nabaritzen da.

**-HIZKUNTZAREN ALDETIK NOLA KOMUNIKATZEN ZINEN HAURRAREKIN? ZEIN ZEN BERE AMA HIZKUNTZA? HAURRAK ZAILTASUNAK DITUZTE ELEDUN IZATEKO?**

Bere ama hizkuntza da Ganbara, eta hango eskolan frantsesez ikasten zuen orduan berak hitz egiten zidan frantsesez. Orduan zerbait ulertzen nion. Baina erabaki nuen hasieratik euskaraz hitz egitea a tope eta nik ikusten dudana da eta oso argi gainera hainbat hizkuntza dituztenen kasuan oso erraza hartzen dute euskara honen kasuan izan da izugarria, ezin dugu sinistu. Eta aldiz, beste bi haurren kasuan latino-amerikarrak direnak eta bakarrik izan dute gaztelania haien bizitzan oraindik ez dut lortu apenas euskara ulertzea eta nik uste hori dela oso emaitza argia ez? Nola garunean hizkuntza bat baino gehiago izatea txikitatik malgutasun eta plastizitate handia ematen diola garunari.

**-ZER ZAILTASUN ETA ERRAZTASUN IZAN ZITUEN HAURRAK? ETA IRAKASLE ZAREN ALDETIK? NOLAKO GARAPENA ETA AURRERAPENAK EGIN ZITUEN?**

Zailtasuna bai izan zela hizkuntza baina esan bezala oso erraz egin zion aurre bere erraztasunak izan ziren bere jarrera. Baita ere taldea txikia izatea ze ratioa 25ekoa izango balitz nik uste gehiago baztertzin direla haien artean taldetxo gehiago egiten direlako baina nola bakarrik diren 15 hori ere izan zen oso klabea familia bat bezalakoa garela eta baita ere ditudan laguntzaile figura bai hezitzaile edo koordinatzaile sartzen dira laguntzera hori oso garrantzitsua izan da. Haien jartzen dira ume honekin bakarrik eta aurrera egiten dute.

**-ZERK LAGUNDU ZION GEHIEN? NON JARRI ZENUEN BEGIRADA? ZEIN ESPAZIOTAN EROSOAGO SENTITZEN ZEN?**

Berari gehien lagundu ziona izan zen jolastea, jolas librea, konturatu nintzen oso akademikoki oso maila baxua zeukala eta horrek asko frustratzen zuela eta orduan egoten zirenean jolasten izugarri aurreratzen zuen ze bera oso alai da oso bizia eta orduan batez ere berari lagundu dio jolas sinbolikoak. Sinbolikoa asko gustatzen zaio eta sinbolikoan

praktikatzen zuen pila bat hizkuntza, lagunekin, eta baita ere patioan eta dinamika jolas horiekin.

**-ORO HAR, USTE DUZU JATORRI BATZUK ERRAZAGO DUTELA ETA BESTE BATZUK ZAILAGO DUTELA EDO EZ DAGO DIFERENTZIARIK? ZERGATIK?**

Noski baietz, zentzu askotan hasteko nik uste arazo nagusia dela pobrezia ez da jatorria orduan klase sozialek asko markatzen dute ez da berdina Alemaniatik etorritako familia diruz ondo dagoena edo pobre bat Marokozetik datorren familia diruz edo Marokozetik datorren familia pobre bat ez da berdina. Nik uste hemen arazoa beti dela pobrezia, pobreei beldurra, pobreei el rechazo, bazterketa. Eta orduan errazago dute dirua dutenak. Dirua ez dutenek ez dituzte baliabideak eta horregatik hasieratik baztertzen zaie. Bai egia da, lehen esan bezala, hainbat hizkuntza etxean edukitzeak asko errazten duela elebakarrak direnak oso zail dute kostatzen zaie pila bat bigarren hizkuntza bat menperatzea eta nik suposatzen dut egongo direla ikerketak horren inguruan ze da pasada bat. Eta bai errazago dute Haur Hezkuntzara txikitatik etortzen direnak nik uste zailtasun handia dagoela Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Haur Hezkuntzara oso garai ona da etortzeko eta bai nik uste alde handiak daudela eta denak ez datozela eskubide berdinekin.

### 9.3.Elkarrizketa (E3)

-ESKOLA PUBLIKO BATEAN EDO KONTZERTATU BATEAN EGIN DUZU LAN? ALDEA IKUSI DUZU ANIZTASUNAREN INGURUAN? KONKRETUKI ZEIN GAUZATAN ANTZEMAN DITUZU DESBERDINTASUNAK? ADIBIDEZ, BALIABIDEETAN? NON DAUDE GEHIAGO?

Kontzertatu batean egiten dut lan eta hor bertan egin dut lan nire bizitza osoan baina egia da zenbat ikastaro egiterakoan edo formazio batzuk izan ditugunean beste errealitate batzuk ezagutu ditugula eta publikoen errealitatea hurbiletik ikusi dugu eta egia esan adibidez publikoetan aniztasuna ugaria da. Orain igual parekatuago egoten hasi dira baina betidanik publikoetan aniztasuna handiagoa da. Eta gero baliabideen aldetik ikusten dudana errealitate nagusia errekurtsoak, publikoetan beti daude errekurtso gehiago adibidez jo ni hasi nintzanean lanean HIPI bezala hasi nintzen eta orduan ikastaro horietan ezagutzen nituen beste HIPI batzuk eta publikoetan askoz ordu gehiago zituzten gauza hauetarako eta buenobetikoa kontzertatuak dira kontzertatuak eta publikoetan errekurtso material eta dirua aldetik gehiago dago.

-ETA GAUR EGUNGO ZURE ESKOLAKO ANIZTASUNEZ HITZ EGITEN BADUGU, ASKO AL DAGO? ZEINTZUK DIRA JATORRI NAGUSIENAK?

Ba gaur egun bai aniztasuna dago baina ez da lehen bezalakoa. Beitu lehen hasi nintzean lanean gu geunden lan egiten eta heltzen ziren etorkinak holan como cuenta gotas eta heltzen ziren euren herrialdetik orain dagoen aniztasuna egia da dagoela baina dira bigarren belaunaldietako etorkinak hemen jaiotakoak eta hori gure eskolan gehienbat dira hegoamerikarrak egia da azken urteotan bi edo hiru etorri direla Saharako familia bat gero morokotik uste dut etorri baina bueno gehiengoak dira hegoamerikarrak bueno hegoamerikarrak gurasoak zeren eta umeak hemen jaio dira. Asko al dago? Bueno jo ez dakit esan pues igual ehuneko... bueno ez ehunekoa ez dizut esango ze seguraski txarto esango dizut baina bai badaude eta nabaritzen da batez ere lehen esan dudanarekin gurasoak etorkinak direla baina haurrak hemen jaiotakoak nabaritzen da bi hiru eta lau urteko gelan batez ere haur hezkuntzan gela bakoitzeko igual daude lau ume edo bai, badaude gero goitik ez goitik gutxiago dago baina azken urteotan nabaritzen da txikitatik sartzen direla gehiago.

-KURTSOAN ZEHAR ETORRITAKO HAUR BATEN EGOERA BIZI IZAN DUZU? NOLAKOA IZAN ZEN HARRERA? ETA EGOKITZAPENA? NOLA IKUSTEN ZENUEN? ZEINTZUK ZIREN BERE JARRERAK? ZEINTZUK BERE EMOZIOAK?

Bai, lehen aipatu dudan moduan hasiera batean nire ordutegi barruan neuzkan ni ordu batzuk orduan etorkin guztiak o sea eskolara etortzen ziren etorkin guztiak nire eskuetatik pasatzen ziren tristea da errealitatea baina holan zen gauza. Beitu eskolak jasotzen zuen delegaritzatik dei bat eta hor esaten zuten beitu bihar edo etzi mm Kolonbiatik etorritako ume bat hasiko da lau urteko gelan eta beste anai bat joango da 6.mailara eta bueno etortzen ziren familiak eskolara egun horretan eta dana egokitu tutoreari korrikan esan tal cual eta bueno zen pixka bat desastroso orduan nire eskolan adibidez egoera hau ez dizut esango egunero baina askotan gertatzen zenez así como una constante gertatzen zitzaigunez protokolo bat jarri genuen martxan. Egin genuen esku-hartze prozesu bat harrera-prozesu bat eta bueno bai delegaritzak deitzen zuen eta esaten zigun bihar joango da bat guk hitz egiten genuen familiarekin eta eskatzen genien familiari egun batzuk geroago joateko eskolara gu bitartean gauzak prestatzeko orduan familiarekin genuen bilera bat familiak ezagutzen zuen tutorea gero umea ere etortzen zen behai familiarekin tutorea ezagutzeko eta pixka bat eskola ikusteko gero tutoreak gela barruan prestatzen zituen ekintzak eta beste umeak beste umeei egoera berriari buruz hitz egiten zien, mapa mundin kokatzen genuen haur berriaren herrialdea zein zen hango ohiturak zeintzuk ziren orduan umea gelara heltzen zenean besteek bazekiten ume hori nondik zetorren ze gauzak egiten zituen bere herrialdean etab. Eta gainera izendatzen genuen nola zen hau? lagun enbajadore bat edo halako zer orduan, umea heltzen zenean beti zeukan beste ume bat alboan laguntzaile moduan, bueno laguntzaile entre comillas ba ume honekin joaten zen lehenengo egunean haur hezkuntzan gaudenez Haur Hezkuntzako gela guztietatik: beitu gure gelara lagun berria etorri da ez dakit zein da bere izena, ez dakit nondik etorri da, hori aurkezpena egiteko.

Umeak heltzean denetarik zegoen batzuk etortzen ziren super pozik eta berehala moldatzen zirenak eta gero beste batzuk beste batzuei asko kostatzen zitzairen eta jo ba eurekin harrera egitea nahiko zaila zen baina bueno urte bat eta bi urteko haurrak bezala egokitzapen aldia dutenez hauek behai egokitzapena behar zuten eta azkenean egiten zuten eta gero nahiko ondo zeuden talde barruan bai izan genituen bi kasu edo jo ez zirenak egokitu azkenean gurasoak erabaki zuten beste leku batera eramatea hizkuntz erdua zela eta baina bueno azkenean egokitzen ziren.

-DUELORIK BA AL DAGO? NOLA EGITEN DIO HAURRAK AURRE DUELOARI?  
ZENBAT IRAUTEN DU DUELOAK?

Bai badago gu badakigulako haiek pasatzen dutela duelua batzuk erakusten dute o sea batzuei nabaritzen zaie dolu horretan daudela eta txarto pasatzen dutela eta beste batzuk aldiz ez doaz super pozik lehenengo egunetik. Dolu hori pasatzeko guk laguntzen diegu eta familiarekin lan egiten genuen behai, orientazioa ematen genien hor sartzen zen eskolako psikologoa orientatzailea esanez igual eskolara joateaz gain gero parkean geratu behar zirela arratsaldean umeekin beste harreman mota izateko edo igual extraeskolalar batera joan behar zirela, bai orientazioa ematen genien.

-ZE BALIABIDE IZAN ZENITUEN? NOLA JOKATU ZENUEN? PROKOTOLOREN BAT JARRAITU ZENUEN? ZEIN? BALIAGARRIA IZAN ZEN? ZER ALDATUKO ZENUKE PROTOKOLO HORI HOBETZEKO?

Hasieran baliabiderik ez, búscate la vida, aquí te llega un niño búscate la vida, baina gero lehen esan dizudanez HIPI proiektu horretan sartu ginen gainera ni HIPIa nintzen eta bueno Berritzegunearekin harremanetan jarri eta bai haiek ikastaroak emateaz gain zenbait baliabide eta errekurtsio materialak ematen zizkiguten gehienbat. Nola jokatu zenuen ni hasieran Interneten bilatzen nuen formazioa ze lan egin zer egin ahal dugu web orrialdetan eta bueno buscandome la vida. Eta gero HIPI proiektuan sartu nintzenean bai laguntza gehiago neukan. Protokoloa komentatu dizut lehen, hasieran ez hasieran zen desastroso buscate la vida un estres gainera eskolan behai egon zen como una revolución porque tutoreak enteratzen ginen beitu kaixo egun on heldu da haur berri bat zure gelara eeh perdona? O sea gaur goizeko 9etan esaten didazu ume berria etorri dela? Baina gero hori ikusita kasu asko zeudela jarri genuen protokoloa martxan eta behin protokoloa jarrita gauzak hobeto ateratzen ziren egia da batzuk protokolo hori ez zutela ondo aurrera eramaten edo gauza batzuk egiten zituzten beste gauzak ez. Hori da irakaslearen arabera. Baina egia da, askoz hobeto ateratzen zirela gauzak eta familiak super pozik zeuden o sea etortzen ziren familiak egiten genien harrerarekin hobeto sentitzen ziren eta eskertzen zituzten gauzak eta hori. Zer aldatu? Jo batzutan igual es que protokoloa, ez, protokoloa uste dut nahiko ondo eginda zegoela egin genuen bi hiru irakasle batera gero pasatu zen zuzendaritza taldetik eta gero behai egon ginen harremanetan Berritzegunearekin HIPI formazioa ematen zuen tipoarekin lagundu zigula asko eta orduan nahiko ondo zegoen eginda. Ez uste dut ez nukeela zerbait aldatuko.

- ARLO HORRETAN FORMATUTA ZAUDETE? BA AL DIRA IKASTARORIK?

Boom hori egon zenean gogoratzen naiz Berritzegunetik igual bi orduko edo lau orduko formakuntza eman zigutela holan *a grosso modo* gauza batzuk ikusteko. Baina gero egia da



hori eskolako pertsona bat aukeratu zen HIPI izateko kasu honetan ni izan nintzen ni justu sartu nintzen eskolan bi urte aurrerago eta orduan nengoen espezifikoa Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta orduan HIPI orduak eman zizkidaten eta orduan HIPI formakuntza jaso nuen Berritzegunearen aldetik hasieran Berritzeguneko neska bat etortzen zen nirekin eskolara eta material asko ematen zizkidan eta asko laguntzen zidan gero behai Berritzegunek prestatutako ikastaroetan parte hartze nuen hori Berritzegunean bertan egiten ziren ikastaro horiek eta beste HIPI batzuekin elkartzen nintzen eta bueno han gure ikuspuntuak eta gure esperientziak konpartitzen genituen eta hori aberasgarria izan zen behai gauza asko ikasten edo ez dakit zuretzat geratzen zenituen eta hori eta ikastaro horiek hasieran izan ziren nahiko luzeak eta gogoratzen dut behai egin nuela ikastaro bat esto era el alumnado inmigrante edo holan Deustoko unibertsitatean eskolak proposatu zidan eta baietz esan nuen eta bai hara joan nintzen Deustura porque uste dut izan zela aste bateko ikastaroa eta bai ni formakuntza izan nuen horretarako baina esan dizut klaustroak klaustro osoak hori jaso genuen bi edo lau orduko txarla bat holan jartzeko pixka bat en antecedentes.

**-BESTE HAURREK NOLA JOKATU ZUTEN? NOLAKO HARREMANA IZAN ZUEN HAURRAK BESTE KLASEKIDEEKIN? HARREMANAK ESTUAGOAK EGITEKO EDO HAURRA TALDEAREN BARNE SENTITZEKO PROPOSAMENIK DITUZU?**

Haur Hezkuntzan arazorik gabe, oso ondo hasiera batean lagun berria daukagu ez dakit zer tal cual guztiek berarekin egon nahi zuten guztiek lagundu nahi zioten eta hori Haur Hezkuntzan oso ondo baina badakit Lehen Hezkuntzan eta jo batez ere DBHra joaten zirenak haurrak askotan arazoak zituztela jo gainera hori dira beste herrialde batekoak ez dakit janzkera ezberdinarekin, eta badakizu umeak batez ere Lehen Hezkuntzako goiko mailatan badakizu nolakoak dira aah mira como va vestido kasu batzuetan hori psikologoak eta tutoretzak egin behar zituzten porque bueno harrera ez zen oso ona izan. Hori denetarik.

Haurrak harreman estuagoak egiteko ba lehen komentatu dugu batez ere hitz egin behar genuen familiarekin eta familiak hori esaten genien eskola eta gero parkean egoteko extraeskolarrak egiteko. Baina klaro gero arazo bat zegoen, etortzen ziren familiak ez dakit zenbat ordu geundenean eta haien umeak geratzen dira gauza pilo batekin gero egon amarekin ez dakit norekin edo anai-arreba nagusiekin eta orduan parkera joateko eta gauza horiek egiteko arazoak zituzten baina hori esaten genien parkera besteekin joateko, edo saiatzeko beste hurrekin eskolara etortzeko agian dauden ekintzetan parte hartzen, beste hurrekin egoteko beste modu batean. Eta gero egia da denetarik dagoela, gaur egun ikusten ditut kaletik talde batzuk igual orain dela hamabost urtekoak edo holakoak eta guztiak

elkarrekin daude eta pentsatzen duzu jo e hori zen badauzkat buruan batzuk etorri zirela Cochabambatik Boliviako ia oihanetik eta ez zeukaten korrienterik etxean eta etorri zirenean haiantzako dena zen berri eta gaur egun adibidez ikusten dituzu eta hemengo umeekin ateratzen dira kalera eta lagunak dira eta bueno oso ondo moldatu dira eta euren ikasketak egiten jarraitzen dituzte eta guztiz barne ikusten dituzu. Eta esaten duzu jo beitu hasieran super zaila izan zen haiantzako eta hori eta orain beitu zer ondo sartuta dauden talde horren barruan ez? Eta polita da hori. Pero beste batzuk bai badakizu beste leku batzuetara joan direla eeh pues hemendik pasatu ziren kasualitatez eta hemendik joan ziren Murtziara eta Murtziatik berriro haien herrialdera eta jo pentsatzen duzu jo egin genuen esfortzua bai gu bai familia bai umea eta gero hemendik hori urtera joan ziren Murtziara gero Murtziatik ez dakit nora eta bueno el kaso batzuk moldatu zirela super ondo beste batzuk zailago izan zuten baina gaur egun ikustea nola dauden gizartean edo herrian ikustea polita da.

-KOMUNIKAZIOA NOLAKO IZAN ZEN HAURRAREN FAMILIAREKIN? ETA FAMILIAREN EGOERA NOLAKO DA? ZER JARRERA IZATEN DUTE? HIZKUNTZAREN ALDETIK NOLA KOMUNIKATZEN ZINEN HAURRAREKIN? ZEIN ZEN BERE AMA HIZKUNTZA? HAURRAK ZAILTASUNAK DITUZTE ELEDUN IZATEKO?

Alde batetik nire eskolan hizkuntzaren aldetik adibidez ez genuen arazorik izan gehienak bai gehiengoak hego amerikarrak zirelako orduan hizkuntzaren aldetik arazorik ez. Komunikazioa bueno gu nahi genuen izatea jo holan jarraian hurbila eta harreman hurbila eta hori baina bueno familia batzuekin ezinezkoa zen zuk deitzen zenien eta hor zeuden prest zurekin hitz egiteko eta proposatzen zenituen gauzak egiteko behintzat egiten saiatzeko baina beste familia asko nahiko zaila zeukaten zergatik? Etortzen ziren batzuk lan egiten zuten interna moduan umeak zeuden osaba edo izekorekin edo amarekin edo ez dakit norekin eta ama edo aitarekin zaila zen hitz egitea edo hitz egiten lortzen bazenuen bazenekien haiek ez zutelara aurrera eramaten zuk proposatutako gauzak ez zutelako nahi ez zeukaten denborarik ez zeuden umeekin eta orduan ezin zuten egiten orduan zuk esfortzua egiten zenuen eta zuk prestatzen zenituen gauzak, materialak errefortzua egiteko eta gero familiak ez zituzten egiten etxean batzuk igual paso egiten zutelako baina beste batzuk benetan ezin zutelako. Bakarrik lan egiteko denbora zuten umeak edo familia aurrera ateratzeko.

Euren jarrera hori komentatu dizudana batzuk zeuden prest dena egiteko beste batzuk bai bai esaten zuten eta gero ez zuten egiten posible ez zelako edo ezin zutelako nahi. Hasiera batean jarrera zen normalean etortzen zirenean holan como con desconfianza batzuk oso beldur ziren ze hizkuntza zela eta euskara aldetik zalantza asko zituzten eta baina bueno haien jarrera normalean nahiko ona nahiko ona batez ere gurekin baina gero guk proposatzen genituen gauzekin hori batzuk egiten zituzten beste batzuk ez, denetarik izan genuen. Es que jo orokortzea ez dakit da zaila. Eta gero hori badaude familiari esker badaude ume batzuk aurrera atera direnak eta unibertsitatean daudenak edo egon direnak eta ikasketa burutu dituztenak eta badaude beste batzuk igual DBH ez? Ez zutenak gainditu etxean ez zegoelako hori baina bueno hori hemengo familiak bezala batzuk oso ondo beste batzuk kili-kolo eta beste batzuk sin comentarios.

**-ZER ZAILTASUN ETA ERRAZTASUN IZAN ZITUEN HAURRAK? ETA IRAKASLE ZAREN ALDETIK? NOLAKO GARAPENA ETA AURRERAPENAK EGIN ZITUEN?**

Zailtasunak beste ume guztiak bezala giro berri batera egokitzea baina klaro zen haien kasuan ez zen bakarrik eskolara egokitzea da bere herrialdetik etorri beste herri batera moldatzea herri horretako ohiturak gero eskolara ume berriak pues hombre hori dena zaila baina egia esan berriro haur hezkuntzakoak zirenez esponja bezalakoak dira eta moldatzen dira gauza guztietara ondo. Erraztasunak? Izan daiteke behintzat nire gelara etortzen zirenak erreferente bat zeukaten hemen edo izeko osabak edo lagun bat edo eta orduan hori laguntzen zuen eta errazago egiten zuten dena. Bai euren herrialdeko norbait zegoela hemen haiek etorri baino lehen.

Euren garapenak eta aurrerapenak nik uste dut haur hezkuntzan sartutako haur guztiak edo guztiak ez badira gehienak hori graduatua lortu dutela eta komentatu dut lehen askok goi mailako ikasketak egin dituzte eta batzuk etortzen zaizkit orain burura bata magisteritza egin zuen bestea erizaintza, informatika, beste batzuk dietetika eta nutrición... Bai aurrerapen handiak eta luze momentu bat haiek sartu ziren haur hezkuntzan eta lehenengo urteak zailak izan ziren baina gero ziren hemengo haurrak bezala.

**-ZERK LAGUNDU ZION GEHIEN? NON JARRI ZENUEN BEGIRADA? ZEIN ESPAZIOTAN EROSOAGO SENTITZEN ZEN?**

Nik hitz egiten dut orokorrean hori, lehen esan dizudana ez hemen izatea bere herriko norbait, egia da haiek erosoago sentitzen zirela haien artean esan nahi dut etortzen ziren eta ez zeukaten arazorik inorekin eta gela guztiak ondo hartzen zituzten eta guztiak zeuden pozik etorritako lagunarekin baina beste etorkin bat gelan bazegoen etorritako berria etorritako horrekin elkartzen zen, haiek haien artean elkartzen ziren. Eta hori oraindik gertatzen da gaur egun lehen esan dizut haur hezkuntzako 3 eta 2 gelan daude igual gela bakoitzeko 3-4 guraso hego amerikarrak dituztenak eta haiek elkartzen dira haien artean batzuk ez baina normalean daude taldeka eta nik uste dut kuriooa dela zer o zer izango dute baina elkartzen dira euren artean.

**-ORO HAR, USTE DUZU JATORRI BATZUK ERRAZAGO DUTELA ETA BESTE BATZUK ZAILAGO DUTELA EDO EZ DAGO DIFERENTZIARIK? ZERGATIK?**

Bai ezberdintasun handia dago adibidez bueno klaro kasu bakoitza ezberdina da baina nik uste dut orokorrean adibidez gaztelaniaz hitz egiten dutenek askoz errazago dute beste hizkuntza bat dutenek baino. Eta gero ohiturak eta erlijioa eta nik uste dut adibidez hego amerikarrek errazagoa dutela arabiarrek baino nik uste dut arabiarrek daukatela hori erlijio ezberdina hizkuntza ezberdina janzkera ezberdina gero adibidez Lehen Hezkuntzara edo DBHra badatoz hori neskek eraman behar dutela zapia nik uste dut gauza guzti horiek zailagoa egiten dutela dena, bai batez ere batez ere hizkuntza ezberdina dutenak askoz zailago dute egia da eskatu ahal duzula interpretea baina askoz zailagoa da. Askoz zailagoa da dena.

#### 9.4.Elkarrizketa (E4)

AURKEZPENA: Kaixo Jone naiz, Gradu Amaierako lana egiten ari naiz, aniztasunari buruzkoa. Gai honi buruzko elkarrizketa bat egin nahi nizuke. Elkarrizketa hasi aurretik, bi gauza aipatu nahi nituen: lehenengoa da elkarrizketa hau anonimoa dela eta zure datuak edo zure ikastetxekoak ez direla lanean agertuko.

-ESKOLA PUBLIKO BATEAN EDO KONTZERTATU BATEAN EGIN DUZU LAN? ALDEA IKUSI DUZU ANIZTASUNAREN INGURUAN? KONKRETUKI ZEIN GAUZATAN ANTZEMAN DITUZU DESBERDINTASUNAK? ADIBIDEZ, BALIABIDEETAN? NON DAUDE GEHIAGO?

Bakarrik eskola kontzertatu batean egin dut lan, beraz, nire esperientzia dela eta, ezin dut konparatu arlo horretan ea desberdintasunak dauden hala ez.

-ETA GAUR EGUNGO ZURE ESKOLAKO ANIZTASUNEZ HITZ EGITEN BADUGU, ASKO AL DAGO? ZEINTZUK DIRA JATORRI NAGUSIENAK?

Bai badago baina dauden familia etorkinak dira nahiz eta gure ikasleak hemen bertan jaiotakoak diren. Eta hori ditugun familiak dira Espainiakoak, Hego Amerikakoak eta Afrikakoak gehienbat.

-KURTSOAN ZEHAR ETORRITAKO HAUR BATEN EGOERA BIZI IZAN DUZU? NOLAKOA IZAN ZEN HARRERA? ETA EGOKITZAPENA? NOLA IKUSTEN ZENUEN? ZEINTZUK ZIREN BERE JARRERAK? ZEINTZUK BERE EMOZIOAK?

Bai, baina aurtan adibidez ez, baina pasa den kurtsoan Hezkuntza-laguntzako Espezialista bezala nengoen eta Abenduan etorri zen ume bat Afrikatik, Haur Hezkuntzan hasi zenez beste umeek bezala egokitzaldia egin zuen. Aipatu beharrekoa da Behar Bereziak zituela. Ume honek ez zituen izan arazoak gelan geratzeko, baina bere berdinekiko harremanak ez ziren existitzen, izan ere, besteenganako interesarik ez zeukan. Familiarengandik falta hori bai sentitu zuela eta batzuetan nabaritzen zitzaion tristeago, baina orokorrean ondo egon zen.

-DUELORIK BA AL DAGO? NOLA EGITEN DIO HAURRAK AURRE DUELOARI? ZENBAT IRAUTEN DU DUELOAK?

Esango nuke baietz, egoera guztiz ezberdin baten aurrean ikusten da umea. Ezezagunak diren pertsonekin eta kasu honetan afektuzko edo konfiantzazko pertsonarik gabe, orduan dolu hori bizi behar dute, sentitu behar dute dauden lekua konfiantzazko leku bat dela. Ezin izango nuke esan zenbat irauten duen dolu hori. Depende haur bakoitza nolako den, familiak nolakoak diren eta Hezitzaileak ere nola diren. Baita ere egokitzaldia nola egiten den. Aurreko puntuan aipatu dudan kasuan berak nahiko ausentzia potentia zeukanez, ia dolurik ez zuen izan.

-ZE BALIABIDE IZAN ZENITUEN? NOLA JOKATU ZENUEN? PROKOTOLOREN BAT JARRAITU ZENUEN? ZEIN? BALIAGARRIA IZAN ZEN? ZER ALDATUKO ZENUKE PROTOKOLO HORI HOBETZEKO?

Lehen aipatutako egokitzapen horretan urte askotan zehar egon gara lanean eta praktikan jartzen. Gainera, urtero berrikusten da eta eguneratzen da. Horretaz aparte, irakasleen artean eta kontsultorearekin laguntzen gara eta egoera berriaren bat dagoenean, klaustroan neurriak adostaten ditugu.

- ARLO HORRETAN FORMATUTA ZAUDETE? BA AL DIRA IKASTARORIK?

Ba bai badaude urtero emozioei buruz izaten ditugu ikastaroak eta Berritzeguneak antolatutako ikastaroetan parte hartzen ditugu bai irakasleak bai kontsultoreak.

-BESTE HAURREK NOLA JOKATU ZUTEN? NOLAKO HARREMANA IZAN ZUEN HAURRAK BESTE KLASEKIDEEKIN? HARREMANAK ESTUAGOAK EGITEKO EDO HAURRA TALDEAREN BARNE SENTITZEKO PROPOSAMENIK DITUZU?

Beste haurrek onartu zuten lehenengo momentutik, egia da 2-3 urte zituztela eta oraindik ume hauek nahiko independenteak direla, orduan nahiz eta talde lagun txikiak egon, haurrak normalean jolas paraleloan aritzen dira. Adin tarte honetarako egingo nukeena batez ere izango ziren korro kantal, ipuinak kontatzea..., baina talde kohesioa lantzea adin tarte horretan zaila ikusten dut. Gainera hori badago “ikasle tutoreak” ikasle berriaren egokitzapen osoan laguntzen duena. Normalean, sentazioak positiboak dira eta zailtasun bat agertzean, tutoreak beste erabaki batzuk hartzen ditu.

-KOMUNIKAZIOA NOLAKO IZAN ZEN HAURRAREN FAMILIAREKIN? ETA FAMILIAREN EGOERA NOLAKO DA? ZER JARRERA IZATEN DUTE?

Kurtsoan zehar, bilera desberdinak izaten ditugu familiarekin (familia eta haurra ezagutzeko, jarraipena...) Ama hizkuntza nirea ez bada, bilera horretan hizkuntz hori hitz egiten duen beste irakaslea ere egoten da. Baina gehienbat zuzenezkoa, etortzen zirenean bere bila eta haiekin geneukan kontaktua egunerokoa zen. Egia da, kasu horretan haren ama hizkuntza ingelesa zela, baina gaztelaniaz ondo moldatzen zirenez erreza zen haiekin komunikatzea. Gainera jarrera oso irekia izan zuten eta onartzen zuten esaten genien guztia. Haiek ematen ziguten eskatzen genien informazio guztia ere.

Esango nuke haien egoera ona dela, baina ez dakit ondo.

-HIZKUNTZAREN ALDETIK NOLA KOMUNIKATZEN ZINEN HAURRAREKIN? ZEIN ZEN BERE AMA HIZKUNTZA? HAURRAK ZAILTASUNAK DITUZTE ELEDUN IZATEKO?

Orokorrean, bere ama hizkuntza badakit horrekin moldatzen naiz, bestela keinuen bitartez edo edozein teknika erabiltzen dut, traduktoreak ere erabiltzen ditut maiz. Haur horrekin saiatzen nintzen konbinatzen bere ama hizkuntza, ingelesa eta gaztelania, euskara ia ezer. Haurrak zailtasunak zituen orokorrean komunikatzeko.

-ZER ZAILTASUN ETA ERRAZTASUN IZAN ZITUEN HAURRAK? ETA IRAKASLE ZAREN ALDETIK? NOLAKO GARAPENA ETA AURRERAPENAK EGIN ZITUEN?

Kasu guztiak desberdinak dira baina moldatzeko arazorik ez zuen izan, baina bere egoeragatik zailtasunak izan zituen errutinak ulertzeko bere ahalmena ulertzeko oso murriztuta zegoelako, ez da komunikatzen, orduan jakiteko gertatzen zitzaiona oso zaila izan zitzaigun. Poliki-poliki barneratzen joan zen errutina, baina komunikazioan aurrera pausoak ez zituen eman orduan komunikazioa oso murriztua zen eta gertatzen zitzaiona ulertzeko oso zaila egin zitzaigun.

-ZERK LAGUNDU ZION GEHIEN? NON JARRI ZENUEN BEGIRADA? ZEIN ESPAZIOTAN EROSOAGO SENTITZEN ZEN?

Normalean beste ikasleek asko laguntzen dute eta gehienetan talde lanean aritzen dira gustura. Baita ere esango nuke gure berotasuna eta afektibitatea sentitzea lagundu zitzaion. Bere beharretan ipini genuen begirada eta bere gorputzak komunikatzen ziguna ulertzen joan ginen. Behin eskolan segurua sentitzerakoan, edozein espaziotan eroso sentitzen zen, baina nabarmenduko nuke esperimentazio gelara joaten ginenean eta eguzkia sartzen zenean leihotik, gehien disfrutatzen zuen momentua zela.

**-ORO HAR, USTE DUZU JATORRI BATZUK ERRAZAGO DUTELA ETA BESTE BATZUK ZAILAGO DUTELA EDO EZ DAGO DIFERENTZIARIK? ZERGATIK?**

Nire ustez, ama hizkuntza amankomunean edukitzeak laguntzen du. Esango nuke jatorriak ez duela zertan eragina, eragina dauka familiaren egoera eta umearen egoera. Familiak ematen badio segurantza umeari eta umeak asebetetuta badago arlo guztietan ondo eramango du egoera, ume horiek karentziak izanda, berdin dio ze jatorri duten, kostatuko zaiela moldatzea. Eta hori ere gertatuko zaio gure herrialdean jaiotako umeei, karentziak baditu, moldatzeko arazoak izango dituela ere.

**-GAI HONEN INGURUAN KONTATU NAHI AL DUZU ZERBAIT GEHIAGO?**

Laguntza gehiago edo aholkularitza sail bat egon beharko zela familiei eskolaratzeko momentua errazagoa egiteko. Askok mugak dituzte hizkuntzarekin, beste askok ez dakite ezer ez hemengo antolakuntzari buruz, eta uste dut eskolen gainean ez zela erori behar pisu guzti hori, Hezkuntzatik edo Eusko Jaurlaritzatik laguntzak etorri beharko ziren familia hauei errazteko prozesu hau.

**AGURRA:** Mila esker zure denboragatik eta erantzunengatik beharrezkoa izango da lana aurrera eramateko. Lana bukatutakoan bidaliko dizut emaitza.